

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko apirilaren 4a / 625. zenbakia

GAZTETXOEI ANTZERKIA ERAKUSTEN

Udaleko Hezkuntza
eta Kultura sailek XIII.
Eskola-Antzerkiaren
Jardunaldiak antolatu dituzte



ORAIN ETA HEMEN: IBAI ARTE-REN IDATZIA/6 • KIROLA: MONDRAK BOST FINAL DITU JOKATZEKO/10

ARGAZKIA: OIHULARI KLOWN. AZALA: ALEX AZKARATE

GREMIOEN GIDA/13

Arrasate Irratia

Beti airean.

24 ordu ebengabe emititzen



parte hartu irratian


Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**


KALEINKESTA/ Zeure ustez emakumien kirola gehiago balorau biherko litzake? Zela?



JON ANDER GRACIA
Ikaslie



AITOR URIZAR
Langillie



ELDIN ZIVOJEVIC
Ikaslie



AITANA RODRÍGUEZ
Ikaslie



LEIRE GÓMEZ DE SEGURA
Ikaslie



MERTXE REVILLA
Langillie

Bai, gehiago balorau biherko litzake. Gizonen kirolan ez da babesle faltarik egoten eta emakumien kasuetan be holaxe izen biherko litzake. Ez dakit zela hobetu leiken.

Bai, izen be, oso gutxi balorau dau. Oso gatxa da nesken kirola hobeto baloratitue, gizartien hola sartute dauelako. Kirol batzuekin oso gatxa ikusten dot, gizartie oso itxixe dalako.

Bai, gehiago balorau biherko litzake. Ez da justue. Hala be, kirol batzuen kasuen, futbolien-eta, gatzague ikusten dot, mutilena neskena baiño ikusgarrigaxue dalako.

Neure ustez bai. Futbola ez da ezer baloretan, eta ziklistue be gutxi. Ez da diru gehiago jartie bakarrik, neskok kirola egittera gehixago animau biherko gitza-ke, txipa aldatute.

Bai, oso gutxi baloretan da-eta. Neuk uste dot gizonei emuten dutzegula meritu danak. Beste kirol batzuei be inportantzia haundixague emun biherko geuskie, estereotipuez aparte.

Bai, izen be, oso gutxi balorau dau. Telebisituen eta prentsan nesken kirolen berri gehixago emun biherko leukie, eta babesliek nesken kirola gehixago lagundu biherko leukie.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOAK EDOZEIN LEKUTAN Egia esanda, Arrasaten auto gehiegi daude, eta horren ondorioz aparkatzea oso gaitza da. Zailtasun horiek guztiak kontuan hartu arren, gidari batzuek autoa edozein lekutan uzten dute, eta oinezkoie oso errespetu txikia erakusten diete. Joan den eguenean, udaltzainek Otalora kalean auto bat horrela aparkatuta aurkitu zuten. Txistuak, gidariarendako!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

Laubideko aparkalekuak

Udalak esleitu du Laubideko aparkaleku egiteko proiektua. Lanok urrian edo azaroan hasiko dira.

KULTURA /12

Korrikari ongietorria

Umeek, gazteek eta nagusiek Korrikari ongietorria egiteko hainbat ekintza antolatu dituzte.

KULTURA /14

'Egunkarirock' kontzertua

Bihar, zapatua, herriko 15 rock taldek kontzertua emango dute, *Egunkaria*-ren alde, Uarkapen.

ASTEKO DATUA

15.000

EURO BALIOKO DU LAUBIDEN APARKALEKUAK

15.000 euro kostatuko da Laubide eta Biteri inguruan lur azpian egin gura dituzten aparkalekue-tako plaza bakoitza. Aparkalekuak 50 urtez erabili ahal izango du plaza bat hartzen duenak.

IRAKURLEAREN TXOKOA

“Hauteskundeak laster dira eta botorik ihes egiten ez uztekotan, hasi dira San Andres auzoko aparkalekuak eta noranzkoak ganoraz margotzen. Baina Super BM parean uda aurretik espaloiarene gainean egindako 'eko-aparkalekuei' buruz inork ez dio ezer. Astakeriek hor diraute oinezkoen eskubideak bortxatuz. Baina badakigu: Arrasate is different. Astakeria franko gelditzen dira konpontzeke oraindik hauteskunde aurretik Arrasaten. Txistuak, beraz, San Andresko auzotarren partetik”.

MIKEL ARRUPE

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Negua eta faxismoa

Martxoaren 21eko egunkaria eskuarteran hartu, eta udaberriari ongi etorria egiten dion eguraldiko atalari begira jarri naiz. Amaitu da negua, itxuraz. Meteorologoen iragarri dute udaberria, eta badirudi atzean utzi dugula iragan den negu gogor hori. Bai, negu gogorra diot, tartean tenperatura epelak, hego haizea edo eguzkia ere izan ditugun arren.

Beste behin ere herri honek elur jasa handiak pairatu ditu, ekaitz gogorrenei eutsi behar izan die eta atzerriko fronte bortitzei aurre egin. Gure herriak ondotoxoz ezagutzen dituen gauza horietaz guztietaz ari naiz hitz egiten: torturaz, ilegalizazioez, egunkariaren itxierez, errepresioaz, debekuaz, jazarpenaz, ukazioaz... alegia, negu gogorraz. Halaber, udaberria iritsi bada ere, negu gogorrerako kondena ez zaigu eguraldi onarekin leunduko. Udaberriak ez ditu horren erraz gure bazterrak

goxatuko, lorez eta txorien kantuz beteko. Negu horri aurre egitea da guri dagokiguna, euskaldunoi egokitu zaigun destino latza agian, baina guk, eta ez beste inork, egin beharko duguna. Ez da berria herri honentzat azkenotan jasaten ari garena, negua betidanik eta

betirako dagoela baitirudi. Baina gure herriaren destino beltz hori, munduko beste herri askorena ere bada. Negu gogorak munduko bazter guztietan egiten baititu bisitak, atzo amerikar indigena edo

nafartarron aurka, gaur Iraken edo Euskal Herrian eta bihar...edonon, zeinek daki. Neguaren gidari bakarrak dirua eta militarrek baitira, hemen eta leku guztietan, orain eta beti.

Eta nik negu gogor horri faxismoa deitzen diot. Edo inperialismoa, genozidioa, inbasioa, kapitalismoa... Bere izena edozein dela ere, une eta leku guztietan, ogi gogorari hagin zorrotzak erakutsi!

“Neguaren gidari bakarrak dirua eta militarrek dira hemen eta leku guztietan, orain eta beti”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 4
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99

ZAPATUA, 5
Corcuera, M. Aranbarri 1..... 943 79 22 26

DOMEKA, 6
Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39

ASTELEHENA, 7
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

MARTITZENA, 8
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30

EGUAZTENA, 9
Ruiz, Maala 31..... 943 79 14 09

EGUENA, 10
Español, Araba etorb. 17..... 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguialatorioa..... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak..... 943 79 39 00
Emakumeak..... 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea..... 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

Arrasate
Astelohenetik
egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea..... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa..... 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA..... 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza..... 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jalegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

GERRAREN AURKA
Gaur, egubakoitza, gerraren aurkako kale bilkura deitu dute Herriko Plazan, 19:00etan. Egubakoitzero egingo dute.

BERBALDIK OSASUNAZ
Eroski Fundazioak osasunaren gaineko berbaldiak antolatu ditu Monterronen. Martitzenean, hilaren 8an, *Alergiak: ikas dezagun aurrea hartzen* berbaldia egingo dute, 16:30ean. Eguaztenean, hilaren 9an, ostera, *Bihotz-hodietako gaixotasunak eta hipertentsioa: zer egin behar dugu?* berbaldia egingo dute, 16:30ean.

SORALUZETARREN AFARIA
Apirilaren 11n, Arrasaten bizi diren soraluzetarrek urteroko afaria egingo dute. 20:00etan txikiteoa egingo dute. Horren ondoren, 21:00etan, Alkartu elkarte-an afaria egingo dute. Oraindik izena eman ez duenak lehenbailehen honako telefonoetara deitu beharko du: 943 77 03 69 edo 79 33 09 (Oskar).

ANTZERKIA IAMAIN
Gaur, egubakoitza, Torpedolevel taldeak *Las chicas serias no gustan antzezlan* eskainiko du gauerdian Iamai kafetegian. Sarrera doan izango da.

AEDren AGENDA

'EGUNKARIA'-REN ALDE
Egunkaria Aurrera herri batzordean parte hartu gura baduzu, jo AEDra. Martitzen iluntzetan batzen dira.

'EGUNKARIROCK'
Bihar, zapatua, herriko hamabost rock taldek *Egunkaria*-ren aldeko kontzertua emango dute Uarkapen, 17:00etan.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Gairibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñiñerra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Zortzigarren Korrikak, parte-hartze handia

Euskararen aldeko zortzigarren Korrika Arrasatera heldu zen hainbat herri zeharkatu ondoren. 11:00ak baino apur bat lehenago heldu zen Arrasatera Elorregi aldetik, uste baino lehenago heldu ere. Korrika jendetsua izan zen, eta umeez eta nagusiez gogotsu hartu zuten parte.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“abarua”



Arbolapeko babesa.
—Abarua ero keizpia; eurixa danian arbolapera joango gaittuk, abarua jak or da.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Astelehenean, Korrika Arrasate Irratian

Astelehenean iritsiko da Korrika 13 Arrasatera, eta herriko irratia ere jarraipen zabala egingo du. 09.30ean lekukoa eramango duten korrikalarietara berba egingo dugu, korrikari ongietorria egiteko ekintzen gainean jardungo dugu. Horrez gain, Ruper Ordorika Korrikaren kantuaren egileetarikotekin izango gara, baita Itxaro Artola Korrika Kulturaleko arduradunarekin ere. Gainera, Korrikari ibarrean zehar ere jarraipena egingo diogu. Baina ez da guztia astelehenera muga-

tuko. Korrika bukatu arte, egunero, 10:00etan, bat egingo dugu Korrikako furgonetarekin, Korrika non doan jakiteko. Gaur, egubakoitza, bestalde, iluntzeko *Planing Prest* saioan korrikaren hasiera jasoko du Deiane Arrietak.

ETA ASTE BUKAERAN

Anjel Alkain aktorearekin egin dugu berba *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlanaz. Maitane Olabarrieta ozeanografoarekin ere egon gara. Zapatuan eta domekan berriro entzuteko aukera.

HAUGIROA!

MINIMOA **6 °C**
Eguaztena, 26

MAXIMOA **22 °C**
Eguaztena, 26

ASTEKO EURIA (l/m²) **14,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 26	22 °C	6 °C	— l/m²
Eguena, 27	20 °C	9 °C	2,2 l/m²
Egubakoitza, 28	14 °C	11 °C	5,4 l/m²
Zapatua, 29	20 °C	10 °C	0,2 l/m²
Domeka, 30	20 °C	7 °C	3,8 l/m²
Astelehena, 31	18 °C	11 °C	— l/m²
Martitzena, 1	20 °C	7 °C	3,3 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguediko hamabiki arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tarteak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

ASTELEHENA
20:00 **MIR:** Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.

MARTITZENA
20:00 **Txortxorrien:** Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.

EGUBAKOITZA
19:00 **Planing Prest:** Delane Arrieta

ZAPATUA
11:00 **Asteko elkarrizketak:** Miriam Urkia euskaltzain urgazlea, Anjel Alkain aktorea, Maitane Olabarrieta...

DOMEKA
11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Gerraren gaineko galdeketa

Gerraren gaineko galdeketa egin zuen Gerraren Aurkako Plataformak domekan. Arrasatearrei galdera bi egin zizkieten galdeketa: ea Iraken aurkako gerraren alde zeuden eta Espainiako gobernuaren jarrera ondo iruditzen zitzairen. Galdeketa arratsaldeko bostak arte egin zuten, eta zortzietan ireki zituzten kutzak. Guztira 1.263 arrasatear agertu ziren Irakeko inbasioaren kontra.

Manifestazioa Iruñean

Joan den zapatuan Bautista Barandalla eta Koldo Kareaga preso politikoen egoera salatzeko manifestazioa egin zuten Iruñean. Debagoienetik autobus bat joan zen Iruñera, ibarreko Etxerat taldeak antolatuta. Autobusa Arrasatetik irten zen, arratsaldeko hiru eta erdietan.

Manifestazioan Bautista Barandalla eta Koldo Kareaga presoek bizi duten egoera salatu zuten. Horrekin batera, Espainiako Estatuaren jarrera salatu zuten. Preso bi horien osasun egoera larria dela eta neurriak har daitezkeen eskatze- ra joan ziren Iruñera.

MUK diplomak banatu zituen

Mondragon Unibertsitateko 400 ikaslek diplomak jaso zituzten joan den egunean. Ingeniaritzako hainbat arlotako ikasleek jaso zituzten tituluak: Ingeniaritza Teknikoko ikasleek, Ingeniaritza Informatikokoek eta Industria Ingeniaritzakoek.

Diploma banaketa ekitaldian, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko errektore Inaxio Oliveri, Fagor Elektratres- nak enpresako zuzendari nagusi Pablo Mongelos, Eskola Politeknikoko zuzendari Jabier Retegi eta ingeniaritza zuzendari Jabier Mendiluze egon ziren.



Aralar taldearen aurkezpena Arrasaten

Maiatzeko hauteskundeetarako Joxe Etxeberria eta Aintzane Ezenarro izango dira Deba-Urola barrutian Aralarren hautagai. *Pertsona guztiak, ideia guztiak, proiektu guztiak.* Izenburu horrekin aurkeztuko da Aralar Gipuzkoako batzar nagusietarako hauteskundeetara.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Antzerkia egiteko zaletasuna

Arrasateko Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailek XIII. Eskola-Antzerkiaren Jardunaldiak antolatu dituzte. Ikasle ugarik antzerki talde profesionalen antzeztan ikusiko dituzte; Amaia Udal Antzoki-ko instalazioak ezagutuko dituzte; eta ikasleek euren lanak jendaurrean aurkeztuko dituzte. Jardunaldi horiek antolatzea oso ideia

ona da gaztetxoak antzerkira hurbiltzeko.

Zoritxarrez, Kulturako zinegotziak prentsaurrekoan gogoratu zuen bezala, pena da azken urteotan herrian antzerki talderik sortu ez izana. 80ko hamarkada bukaeran, Gurea gaztetxean Tunantes del Norte antzerki taldea sortu zuten. Hainbat ikuskizun prestatu zituzten eta 90eko hamarkada bukae-

ra arte lan handia egin zuten. 90eko hamarkadan, hiru gaztek Txirta talde komikoa sortu zuten, baina ibilbide motza izan zuten.

Egun herrian dagoen antzerki talde bakarra Txatxiartistak dira. Eskola kanpoko ekintzak abiapuntu hartuta, Txatxilipurdik talde horren ardura hartu zuten.

AEDk eta beste elkarte batzuek antzerki ikastaroak antolatu izan dituzte, baina zoritxarrez taldeek ez dute jarraipenik izan.

ASTEKO IRUDIA



XABIER URZELAI

INOIZ BAINO TALDE GEHIAGOK EROSI DUTE KORRIKA EGUNERAKO KILOMETROA

Orain dela urte bi gaueko ordu txikietan iritsi zen Korrika Arrasatera, eta herriak sekulako harrera egin zion. Astelehenean, hilaren 7an, berriz, arratsaldeko sei eta erdietan iritsiko da Korrika Arrasatera, eta askoz ere jende gehiago egongo da zain. Herriko hainbat talde, elkarte, enpresa eta ekime-

nek inoiz baino harrera beroagoa egin diote Korrikari. Izan ere, guztira 30 kilometro saldu dituzte, eta albiste pozgarria da hori. Urteek aurrera egin ahala ea geroago eta kilometro gehiago erosten ditugun, eta, horrekin batera, ea euskara geroago eta sarriago erabiltzen dugun. /XABIER URZELAI



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebendun hizkiak

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

Arrasateko merkataritza indartzeko planaren gainean Ibai-Arteren iritzia

UBANE MADERA

Joan den astean, Eusko Jaurlaritzak Arrasateko merkataritza biziberritzeko egindako plan bereziaren berri eman genizuen. Zenbait dendariren iritzia ere jaso genuen gure artikuluan. Oraingo astean, Ibai-Arte elkartearen iritzia zein den azalduko dugu.

Lehenik eta behin, Ibai-Arte merkatarien elkarteak dio Eusko Jaurlaritzak egindako proiektu horretan, Arrasateko merkataritzaren egoera aztertu eta egoera hori hobetzeko proposamenak egiten dituztela. Proposamen batzuk Udalak bideratu beharko ditu, eta beste batzuk merkatarien esku geratuko dira. Era berean, batzuk epe luzerako dira eta beste batzuk epe motzerako.

Jaurlaritzak proposamen asko egin ditu bere egitasmoan; eta, Ibai-Arteren ustez, gainera, positiboak dira. Adibidez, bost parking egitea aurreikusten du Jaurlaritzak.

Edozelan ere, zatika egin beharreko lanak direla ere argi dauka Arrasateko merkatarien elkarteak. Hori dela eta, Ibai-Arte uste du zer egin erabakitzeko orduan lehenetsunak ezarri beharko lituzketela. Eta, ildo horretan, Ibai-Arte bere proposamenak egin gura ditu.

SALTOKIEN BERRIKUNTZAK

Adibidez, Arrasateko saltokiek berrikuntzak egin beharko lituzketela dio merkataritza bizibe-



ARTIBOIA

Arrasate erakargarriagoa egitea merkataritzarendako egokia dela uste du Ibai-Artek.

rritzeko planak. Eta, hori oso garrantzitsua dela uste du Ibai-Artek. Horren harira, dio berrikuntzak egiteko orduan, saltokiaren jabeak berak egin beharrekoaz gain, berrikuntza-lanak egiteko baldintzak malgutu beharko lituzkeela Arrasateko Udalak (*Peri* izeneko araudian ezarritako baldintzak, alegia).

MULTIZINEMAK

Bestalde, Arrasate ibarreko merkataritzagunea izatearen garrantzia azpimarratu du merkatarien elkarteak. Horrez gainera, Arrasateko denda txikiek merkataritzagune handiekin eta Gasteizko

denden eskaintzarekin lehiatu ahal izateko duten beharra ere azpimarratzen du. Eta, dio bide horretan laguntzeko, Arrasateko erdialdean multizinemak ipintzea oso egokia litzatekeela. Horrek Arrasate erakargarriago egingo lukeelako.

TOKIAN TOKIKOA

Bestalde, uste du Lurraldearen Zatiko Planaren asmoa dela herri bakoitzari beharrezko dituen zerbitzuak eta merkataritza lortzeko bultzada ematea. Eta, uste dute hori dela bidea. Bereziki, kontuan hartuta Eibar-Gasteiz autopista egitean, dezente erraztuko zaio-

la erosleari Gasteizera joateko aukera; ondorioz, horrek eragina izan dezake Arrasateko merkataritzan.

IPARRALDEAREN KASUA

Iparraldean gertatutakoa ere aipatzen dute Ibai-Artekoek. Alegia, Iparralden kaleak hutsik geratu direla, merkataritzagune handiak bultzatu dituztelako, denda txikiak indartu beharrean. Hortaz, horrelako egoerak kontuan hartzeko eskatzen dute.

APARKALEKUAK

Aparkalekuen beharra ere ez dute ahaztu merkatariek. Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako parkingak egitea oso garrantzitsua dela uste dute, baina, bestelako neurriak ipintzeko aukera ere kontuan hartzeko eskatzen dute; adibidez, TAO ipintzeko aukera.

Bukatzeko, ondo deritzote merkatu txikia berritzeko proposamenari, baita, Laubideko aparkalekua egiteari ere. Era berean, euren gain hartzen dute etengabeko formazioa egiteko, Arrasateko bestelako saltokiekin harreman handiagoa izateko eta Arrasateko denden gainean publizitate gehiago egiteko konpromisoa.

UDALAREKIN KONFORME

Gainera, Ibai-Arteko ordezkariak diote Udalaren aldetik alde zuzeneko jarrera ona izan dute merkataritzaren gaia lantzeko orduan; eta euren artean informazioa elkartrukatzeko bidea izan dela.

LABUR

Euskal komunitatearen gaineko liburua

Arrasateko Udalak *Euskal komunitatearen bizindarra Gipuzkoako bost herritan* izeneko ikerketan parte hartu zuen 2001ean. Orain, ikerketa horren emaitzaren gaineko liburua aterako dute, eta egitasmo horretan ere hartuko du parte Arrasateko Udalak.

San Andresko bidegorria egiteko laguntza

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 13.004,48 euroko dirulaguntza eman dio Arrasateko Udalari San Andresko bidegorriarendako. Hala jakinarazi dute oraingo asteko Gobernu batzordean. Diru hori, besteak beste, hobekuntza lanak egiteko izango da.

Herriko dendariendako ikastaroak

Udaberriari eta udari begira Ibai-Arte erakusleihoak apaintzeko ikastaroa antolatuko du saltzaileendako. Ikastaroa maiatzaren 19an hasiko da eta maiatzaren 30ean bukatuko da. 20 ordu emango dituzte, astelehenetik egubakoitzera, 14:00etatik 16:00etara. Interesaduenak Ibai-Artera jo dezala.

Zatiko Planari alegazioak egiteko epea luzatu egin dute

Hainbat herritarrek eskatuta, Eusko Jaurlaritzak luzatu egin du Lurraldearen Zatiko Planari alegazioak aurkezteko epea. Kontua da, plan horrek askorengan izango duela eragin zuzena. Eta, horietako askok orain dela gutxira arte ez dutela ezeren berririk izan.

ALEGAZIOAK

Horren harira, joan den asteko udalbatzarrek aho batez onartu zituen Arrasateko Udalaren izenean plan horri aurkeztu beharreko alegazioak.

Lehenik eta behin, plan horren garrantzia aipatu zuen, esanez beharrezkoa eta premiazkoa dela; baina, horrekin batera, planari berari egindako zuzenketak onartzea ere eskatu zuten zinegotziek. Hain justu, batetik, Lurraldearen Zatiko Planaren edukiaren gaineko alegazioak aurkeztu zituzten. Eta, bestetik, Arrasateretik plan horrek duen eraginarekin lotutako alegazioak aurkeztu zituzten.

Urkulun egin gura duten egitasmoa berriro aztertzea eskatu du Arrasateko Udalak

ARRASATEREKIN LOTUTAKOAK

Horrela, bada, Arrasaterekin zerikusia duten alegazioen artean, batetik, etxebizitza berrien kopuruari dagokion goi-mugarekin ez daude ados. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren planaren arabera, Arrasatek, asko jota 2.878 etxebizitza eraiki ahal izango ditu, Urkuluko eko-hirirako aurreikusten diren 300 etxebizitzak kontuan hartu barik. Udalbatzaren ustez, muga hori oso urria da.

Jarduera ekonomikoetarako azaleraren goi-mugarekin ere ez dago ados udalbatzarra. Lurral-

dearen Zatiko Planaren arabera, Arrasateri 297 hektarea dagozkie, asko jota. Kopuru horren barruan sartu dute Garaiaren 44 hektareak eta Azalera Handiko Merkataritzari zuzendutako 11 hektareak. Hori ere nahikoa ez dela uste du Udalak.

Bestalde, Urkulu inguruan bizibide alternatiboa bultzatzeko egitasmoa berriro aztertzea eskatzen dute. Udalaren iritziz, inguru hori dagoen moduan laga beharko lukete.

Eta Arrasateretik Kanpanzarerako gunearendako Jaurlaritzak dituen asmoekin ere ez dator bat Udala. Hain zuzen, Egitamu Orokorrean aurreikusitakoarekin ez datorrelako bat. Hori ere esan diote Jaurlaritzari.

Eta, bukatzeko, Amaia Udal Antzokia eskualde mailako hornikuntza moduan hartzea eskatzen dute eta Epeleko araztegia Mekolaldekoa baino lehenago egitea.



Fusilatuen aldeko mozioa onartu dute

Aho batez onartu du udalbatzarrek 36ko kolpe militarren ondorioz fusilatutako herritarren aldeko mozioa. Mozioan, hilketen bidegabekeria aitortzen dute, belaunaldi berriei gertatutakoaren berri emateko konpromisoa hartzen dute, omenaldia egitea eta monolitoa ipintzea onartzen dute, besteak beste. Irudiotan, Fusilatutako Senitarteko eta Lagunen batzordeko zenbait kide.

HIRIGINTZA/ Garibaiko eta Laubideko aparkalekuak

Laubideko aparkalekua egiteko bi urteko epea dute

UBANE MADERA

Bikani Eraikuntzak SL enpresak egingo du Laubideko aparkalekua eta Roneoko etxeen ondokoa kudeatuko du. Hala erabaki zuen osoko bilkurak, ASArekin, EAren eta EBren aldeko botoekin eta gainerakoekin kontrakoekin.

Arrasateko Udalarekin kontratua sinatu, eta hiru hilabeteko epea izango du Bikani SL enpresak Garibaiko eta Laubideko aparkalekuen proiektua aurkezteko. Hain justu ere, Laubide eta Biteri inguruan aparkaleku berria eraiki behar dute (Laubideko aparkalekua); eta, gaur egun dagoen udal aparkalekua (Roneoko etxeen ondokoa) kudeatuko dute. Horrez gainera, aparkaleku zaharra egokitu ere egingo dute.

Guztira, 427 aparkaleku eraikiko dituzte Laubiden. Horietatik 150 leku edozeinek erabili ahal izatekoak izango dira. Eta gainontzekoak, saltzeko izango dira, partikularrendako.

Urria-azaroa inguruan hasiko dira lanak egiten.

SALMENTA ETA BEHERAPENAK

Hirigintza saileko teknikariburu Juan Antonio Urdangari- nek adierazi digunez, 50 urterako salduko dituzte aparkalekuak; eskriturak eta guzti emango diz-



UBANE MADERA

Guztira 427 aparkaleku egingo dituzte Laubide-Biteri inguruan.

kiote erosleari. 15.000 euroko prezioa izango dute, baina, beherapenak ere izango dira.

Horrela, Laubideko aparkalekuen proiektua onartu eta hurrengo sei-zazpi hilabeteetan erosten dutenek %15eko beherapena izango dute. Hortik aurrera, lanak bukatu arte erosten dutenek %10eko beherapena. Eta, behin obra bukatuta erosten dutenek 15.000 euroak ordaindu beharko dituzte.

Hain justu, salmenta egiterakoan, eroslearekin aurre-kontratua sinatzen denean, erosle-

ak prezioaren %25a ordaindu beharko du, eta eskriturak sinatzerakoan gainontzekoa.

Gutxi gorabehera hemendik bi hilabetera finkatuko dute aparkalekuak saltzeko egutegia. Orduan esango dute zelan egingo duten.

GUZTIONDAKO APARKALEKUAK

Edozeinek erabili ahal izateko aparkalekuei dagokienez, berriz, honako prezioak zehaztu dituzte: aurreneko ordu erdiarengatik 0,57 euro, eta hortik aurrera, 0,99 euro orduko.

POLITIKA/ Herri anitza, Herrian hitza

Herri anitza-ren aldeko sinadurak batzeko epea

Iragarri genuen moduan, Herri anitza, Herrian hitza izeneko Arrasateko plataformak maiatzaren 25eko hauteskundeetara aurkezteko asmoa dauka. Baina, horretarako, 500 sinadura batu

behar ditu Arrasaten.

Hori dela eta, sinadurak batzeko 11 eguneko epe-muga ipini dute taldekideek. Bihartik, zapatua, datorren 16ra arte, eguaztena. Gura duenak Arrasateko

Udaletxeko Idazkaritzara jo beharko du sinadura ematera. Ordutegia honakoa da: astelehene- tik egubakoitzera, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Berriz, zapatuetan, 10:00etatik 14:00ak arteko astia izango da.

Sinatzeko derrigorrezkoa da Nortasun Agiria edo Pasaporte-ramatea. Horrez gain, 18 urte beteta izan behar dira, eta Arrasaten erroldatuta egon beharra dago.

HELBURUAK

Herri anitza plataformak Arrasateko gehiengo soziala, politikoa eta elektoral- lortzea du helburu. Arrasate herri erreferentzial bihurtu gura dute, Arrasatek toki propioa edukitzeko behar dituen bitartekoak eskuratzeko.

Horrez gainera, abertzale eta ezkertiar sentitzen den ororen bilgune izatea ere badu helburu aipatutako plataformak.



ARRASATE PRESS

Bostehun sinadura batu beharra dauka Herri anitza plataformak.

LABUR

Hauteskundeetarako zerrendak datorren astean egongo dira ikusgai udaletxepean

Datozen hauteskundeetarako zerrendak datorren apirilaren 7tik (astelehena) 14ra arte (astelehena) egongo dira ikusgai udaletxe-ko arkupean. Orain arte, bi aste-ko epea eman izan dute norberaren izena zerrendan dagoen edo ez konprobatzeko, baina aurt- en erdira murriztu dute epe hori; hortaz, adi ibiltzea komeni da.

2003ko martxoaren leian itxi zituzten zerrendok. Horrek esan gura du, data horretan 18 urte edo gehiago zituzten herritarren izenak egon behar direla. Herritarrekin batera, botoa emateko esku- bidea duten atzeritarren zerrenda ere izango da kontzejuean. Nor- baitek arazoren bat izanez gero, erreklamazioak aurkezteko esku- bidea dauka, beti ere, Udalaren bulego ordutegian egiten baditu.

Osasunaren gaineko hitzaldiak antolatu ditu Eroski Fundazioak datorren asterako

Datorren martitzenean eta eguaztenean osasunaren gaineko hitz-aldiak izango dira Monterron jauregian, Eroski Fundazioaren esku- tik. Horrela, martitzenean, alergi- en gainean berba egingo du Ama- goia Muruamendiaraz sendagileak. Alergiei aurrea hartzeko non- dik norakoak izango ditu berba- gaiak. Eta, eguaztenean, bihotz- hodi- etako gaixotasunen gainean berba egingo du Alberto Rodríguez sendagi- leak. Horrelako kasuetan zer egin behar den azalduko du hark. Gura duen oro joan daiteke hitzaldietara. 16:30ean hasiko dira.


Zalduspe kalea zolatzeko eskaera dela-eta, konponketa lanak egingo ditu Udalak

Abenduan Zalduspe kalea zolatzeko eskaera jaso zuen Arrasateko Udalak. Eta orduan erabaki zuen harik eta urbanizazio lanak buka- tu arte ez zuela ingurua zolatu, garestiegia delako (24.000 euro baino gehiago). Horren ordez, euri-urak batu eta dauden zuloak estaltzea erabaki zuten. Hain justu ere, hori egiteko proiektua aur- keztu dute udaletxean. Eta, oraingo aste-ko Gobernu batzordeak erabaki du 7.662 euro pasatxo ematea lanotarako.



Arrasaten ere, grebarekin bat

Sindikatuak ADEGI enpresari- en elkarrekin metaleko lan hitzarmena adostu ezinda dabil- tza- eta, greba deitu dute gaur- ko, egubakoitza. Greba Deba Arroan egiteko dago deituta, hor- taz, baita Arrasaten ere. Horren harira, adibidez, oraingo hone- tan, kooperatiben atxikimendua izango dute grebalariek. Gre- barekin batera, manifestazioa ere egitekoan ziren, gaur, 12:00etan, Bergaran. Horrez gainera, ADEGIk ez badu proposamen hobe- rik egiten, greba deialdi gehiago egingo dituztela iragarri zuten ELA eta LAB sindikatu- etako ordezkariak.




1.724 DA ZENBAKI SARITUA

Arizmendiko ikasleak gurean izan ziren joan den egubakoitzean, ikas-bidairako saldu zituzten txartelen zozketa egiten. hain zuzen ere, 1.724 zenbakia izan da saritua, eta zelako saria, gainera: Realaren eta Real Madrilen arteko partidurako sarrera bi, Londres hotelean gau bat pasatzeko aukera, La Perla bainuetxerako sarrera bi eta Berasategi jatetxean bazkaria. Donostiara? Horrela bai!

PUNTA-PUNTAOKO OKELA GEUREAN

Arrasateko harategiak sariak jaso eta jaso dabilta. Salegi harategiak Bilbo Hiria Etxeko Txorizo Txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen. Guztira 123 txorizo aurkeztu zituzten txapelketara: Gipuzkoatik 51, Bizkaitik 42, Arabatik 15, Nafarroatik sei, Kantabriatik bost, Errioxatik hiru eta Extremaduratik bat. Esan barik doa horrenbeste txorizoren artean hirugarren

postua eskuratzea kontuan hartzeko modukoa dela. Baina Salegi ez da saria jaso duen Arrasateko harategi bakarra. Joan den domekan Ander Landaluzek Landaluze harategiak 50 urtetan egindako jardunarengatik saria jaso zuen Donostian. Saria Gipuzkoako Merkataritza Elkarteak eman zion. Sariak jasotzen direnean urte askotako lana egoten da atzean, baita kalitate onena ere.



FUTBOLA

Mutrikuren eta Mondraren arteko partiduan joko urria eta golak azken minutuan (1-1)

Arrasatearrek zeukaten guztia eman zuten, eta 95. minutuan aurre hartu zuten markagailuan, baina hurrengo jokaldian Mutrikuk banakoa egin zuen

XABIER URZELAI

Mutrikuraino joan ziren jarraitzaile mondagoetarrek burumakur itzuli ziren Arrasatera. Mondrak 95. minutuan egin zuen lehenengo gola, baina hurrengo jokaldian Mutrikuk banakoa egin zuen. Jokalariek leher eginda amaitu zuten partidua, gogorra izan zen-eta.

Mondrak balio handiko puntua ekarri zuen Mutrikutik, baina hiru puntuek balio handiagoa zuten, eta arrasatearrek eskura izan zituzten puntu horiek. Ezin esan daiteke Arrasateko taldeak hiru puntuak merezi zituenik, ez zen-eta Mutriku baino nagusia- go izan, baina Arkaitz Garmendiak 95. minutuan egin zuen huts eta batekoak zutik jarri zituen Arrasateko jarraitzaile guztiak.

Bazirudien egin beharrekoa eginda zegoela, hiru puntuak Arrasatera etorriko zirela. Meretzitakoa baino sari handiagoa zen, baina horrelakoetan zortea lagun izatea ezinbestekoa da. Azkarre-

gi poztu ziren Arrasateko jarraitzaileak: gola egin eta hurrengo jokaldian, 97. minutuan, Mutrikuk bat eta batekoa egin zuen.

GOL AUKERA GUTXI

Joan den domekakoa ez zen partidu ikusgarria izan. Mutrikuk badaki etxean zelan jokatu, eta talde sendoa da. Lehenengo zatiko gauza aipagarriena Mikel Mondragonek 30. minutuan egin zuen gelditua izan zen. Bigarren zatian gauzak ez ziren askorik aldatu. Mutriku eta Mondra hamarna jokalarirekin geratu ziren, eta talde biek ere sekulako lana egin behar izan zuten partiduari eusteko. Aipagarria da Mondrak erasoan izan zuen gabezia: oso gol aukera gutxi izan zituen eta oso jaurtiketa gutxi egin zuen.

Partidu amaiera gogorra izan zen, eta jokalariek burumakur erretiratu ziren aldageletara. Goko postuetako hiru taldeak 55 punturekin daude; hortaz, oraindik asko dago egiteko. Bihar Intxurreri irabazita joan den asteko kontuak errazago ahaztuko dira.



XABIER URZELAI

Liga Txapelketa amaitzeko bost partidu baino ez dira geratzen, baina oraindik asko dago egiteko.

Arrasateko Errugbi Taldeak liderraren kontra neurtuko ditu indarrak

X.U.

Arrasateko liderraren zelaira joan beharko du oraingo aste bukaeran. Mondragoetarrek joan den astean erraz irabazi zuten, baina Getxo sasoi onean dago, eta Faduran jokatzeko beti izaten da gaitza. Liderra igoera faserako sailkatzeko borrokan dabil, eta Arrasateko berriz, aukera urriak ditu.

Joan den zapatuan Arrasateko Errugbi Taldeak itxura polita erakutsi zuen Garagartzan. Mondragoetarrek 44-5 irabazi zioten Santanderko Juventud taldeari, eta, joaneko partiduan moduan, Arrasatekoak jaun eta jabe izan ziren.

Norgehiagoka hamabost minutuko atzerapenarekin hasi zuten, Santanderko taldea Garagartzako zelaia ezin topatu ibili zen-eta. Partidua hastearrekin bat Arrasateko lehenengo entsegua egin zuten, eta bigarrena ere minutu gutxira egin zuen. David Jauregiren mutilek bikain aprobeztatu zituzten touch-ak, eta aurrelariak arratsalde biribila izan zuten. Guztia, baina, ez zen ona izan. Arrasateko jokaldi irekietan eta euskarri lanetan badu zer hobetu, baina Santanderkoei ira-



ARRASATE PRESS

Garagartzan jokatu zuten partiduan Getxo nagusitu zen: 13-26.

bazteko ez zegoen zertan dena ondo egin. Lehenengo zatia amaituta arrasatearrek 22-5 zeuden aurretik, eta bigarren zatian alde hori handitzeko egin zuten lan.

LIDERRAREN KONTRA, KANPOAN

Arrasateko taldeak liderraren kontra jokatu du bihar, zapatua (Fadura, 16:30), eta argi dago biharko kontrarioak ez duela joan

den astekoarekin antzekotasunik; izan ere, Juventud azken postuan dago eta Getxo lehena da. Getxoren helburua igoera faserako sailkatzea da, eta mondragoetarrek gogotik egin beharko dute lan bi puntuak etxera ekarri gura badituzte. Helburu hori lortzeko, akats batzuk zuzendu eta gogor zelairatzeak asko lagunduko luke.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate erraz nagusitu zen Kopa Txapelketako bigarren jardunaldian

Kopa Txapelketa gaizki hasi zuten arren, Pitxi Herreroren mutilek bide onari eutsi diote. Jakin bazekiten berriro ere kale eginez gero euren helburua, Kopa Txapelketa eskuratzea, ezinezkoa izango zela. Mondragoetarrek argi zuten hori, eta, hala, AGR Arrasatek 24-15 irabazi zion Leitzaran taldeari.

Lehenengo zatia parekatua izan zen eta mondragoetarrek ez zuten batere ondo jokatu. Atsedendira gol bateko aldearekin baino ez ziren erretiratu (9-8). Bigarren zatian, baina, mondragoetarrek hobeto jokatu eta bederatzi goleko aldearekin nagusitu ziren.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

ESKUBALOIA

Loiola - AGR Arrasate

Lehen seniorrak. Domekan. 11:30. Donostian.

Gatz Museoa Jakion - Legazpi

Kadeteak. Zapatuan. 11:00. Musakolan.

Arrasate - Tolosa

Big. Gazteak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

Gatz Museoa Jakion - Bergara

Lehen. gazteak. Zapatuan. 17:30. Iturripen.

Infantil mailako Gipuzkoako selekzionako

aukeraketa partiduak (mutilak)

Domekan. 09:45-12:15. Musakolan.

Infantil mailako Gipuzkoako selekzionako

aukeraketa partiduak (neskak)

Domekan. 09:45-12:15. Iturripen.

Elorrio (neskak) - Arrasate (mutilak)*

Domekan. 10:30. Elorripen.

*Korrikaren barruan, Arrasateko gazte mailako taldeak Elorrioko senior mailako emakumeen kontra lagunarteko partidua jokatuko dute.

FUTBOLA

Mondra - Intxurre

Erejonala. Zapatuan. 17:30. Atxabalpen.

Mondra - Burumendi

Ohor. gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.

Mutriku - Arrasate

Kadeteak. Domekan. 16:30. Mutrikun.

Arrasate B - Urki

Kadeteak. kopa. Zapatuan. 12:15. Atxabalpen.

Arrasate - Mundaiz

Infant. Igoera fas. Domekan. 10:00. Atxabalpen.

Amaikak Bat - Mondra

Neskak. Kopa. Zapatuan. 17:00. Deban.

SASKIBALOIA

Finco La Salle - Kenci Arrasate

Seniorrak. Zapatuan. 19:20. Deustuan.

At. San Sebastian - Kenci Arrasate

Junior mutilak. Zapatuan. 12:00. Donostian.

Txingudi B - Kenci Arrasate

Kadete neskak. Zapatuan. 17:30. Hondarribian.

Gros Xake B - Kenci Arrasate

Kadete mutilak. Domekan. 10:00. Donostian.

ERRUGBIA

Getxo - Arrasate

Seniorrak. Zapatuan. 16:30. Faduran.

Kenci Arrasatek galdu egin zuen igoera faseko lehenengo partidua

XABIER URZELAI

Kenci Arrasatek, gutxiatik, baina galdu egin zuen igoera faseko lehenengo partidua (77-79). EHU Araba taldeak uste baino maila kaskarragoa erakutsi zuen, eta mondragoetarrek, nahiz eta senior mailako jokalaririk gutxiarekin jokatu, partidua irabazteko zorian izan ziren. Azkenean, baina, arabarrek nagusitu ziren.

Kenci Arrasatek ezin izan zuen igoera fasea garaipen batekin estreinatu. Aurretik bazekiten norgehiagoka gaitza izango zela, baina azkenean uste baino partidua parekatuagoa izan zen. Ondo hasi ziren mondragoetarrek: lehenengo minutuetan aurre hartu zuten markagailuan, eta lehenengo laurdenean defentsan gogor eta erasoan azkar jokatu zuten. Horrez gain, Gorka Kintanak bikain jokatu zuen lehenengo zatian, eta horrek guztiak eragina izan zuen markagailuan.

BIGARREN LAURDENEAN, BEHERA

Lehenengo laurdenean arrasatearrek bederatzi puntuko aldea eskuratu zuten, baina bigarren laurdenean alde hori bertan behera geratu zen, Arrasateko muti-



MIKEL ARANBURU

Kencik Deustuko Fineco La Salle taldearen kontra jokatu du aste bukaeran.

len jokoak behera egin zuen-eta. Bigarren zatian gauzak ez ziren askorik aldatu: indarrak parekatuta zeuden, baina ordura arte Kenci Arrasate izan bazen aurretik, poliki-poliki arabarrek nagusitzen hasi ziren, bai jokoan baita markagailuan ere.

Mondragoetarrek, baina, ondo eutsi zioten arabarren bultzadari, eta kanpotarrek alde txikia lortu zuten. Argi zegoen norgehiagoka azken minutuetan era-

bakiko zela, eta hala izan zen. Arabarrek partidua erabakita uzteko aukera izan zutenean mondragoetarrek hiruko bi saskiratzetara egin zituzten. Azkeneko jokaldian, Gorka Kintanaren jaurtiketak zutik jarri zituen Arrasateko jarraitzaileak, baina baloiak ez zuen saski barrura sartu gura izan.

Aipatzekoa da gazte mailako hiru jokalarik lehenengo taldean jokatzeko aukera izan zutela.


FOTOKIROLA



Arrasatear gazteak bigarren Gipuzkoako Atletismo Txapelketan

Joan den zapatuan Eskola Arterko Atletismo Txapelketa jokatu zen Ordizian, eta Arizmendiko San Viator guneko atletak bigarrenak izan ziren. Mondragoetarrek puntu bategatik ez zuten txapelketa eskuratu: 65 puntu lortu zituzten, eta txapeldunak, Lazkaoako San Benito ikastetxeak, 66 punturekin irabazi zuen. Lazkao eta Arrasate maiatzaren 25ean jokatu den Euskadiko Eskola Arterko Txapelketarako sailkatu dira. Arrasateko atleta gazteek lan polita egin zuten zapatuan: errelebu lasterketan, esate baterako, Iñaki Etxagibelek, Jon Ander Amadok, Markel Blancok eta Imanol Esperasatek sekulako lasterketa egin eta urrea eskuratu zuten.

ZALDIBARARETOFUTBOLA



ZALDIBAR TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEAK

AT Celaya eta AC Surcos taldeek partidua bi jokatu dituzte aste bukaeran.

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Bikain Akademia.	4-3
Etxina! - Dribling.es.vg	3-5
Fuxxion - Lasagabaster	3-9
You Know! - Betraye	7-5

B MULTZOA

AC Surcos - Etxerat	4-11
Manakaki - Iriztu Taberna	6-4
Goma-2 - AT Celaya	4-4
Aurrera Bolie - Koka Juniors	1-11

SAILKAPENA

A MULTZOA

1. Saukelu Scream	P	J	9	5
2. Betraye			8	5
3. You Know!			7	5
4. Lasagabaster			6	5
5. Dribling.es.vg			5	5
6. Etxina!			3	5
7. Fuxxion			2	5
8. Bikain Akademia			0	5

B MULTZOA

1. Etxerat	P	J	8	5
2. AC Surcos			6	4
3. AT Celaya			6	4
4. Koka Juniors			5	5
5. Goma-2			5	5
6. Manakaki			3	5
7. Iriztu Taberna			3	5
8. Aurrera Bolie			2	5

PARTIDUAK

APIRILAK 5, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Saukelu Scream - Betraye.	Antola.
12:00: Etxerat - Manakaki.	Antola.
13:00: Bikain Akademia - Etxina!	Antola.
15:50: AC Surcos - Koka Juniors.	Antola.
17:00: Lasagabaster - You Know.	Antola.
18:00: AT Celaya - Aurrera Bolie.	Antola.

APIRILAK 6, DOMEKA

10:50: AC Surcos - AT Celaya.	Antola.
12:00: Dribling.es.vg - Fuxxion.	Antola.
13:00: Iriztu Taberna - Goma-2.	Antola.

APURKA-APURKA BIGARREN FASEA AUERRERA DOA

ZAPATU ARRATSALDEAN, PARTIDU INTERESGARRIAK

Bihar, zapatua, arratsaldeko laurretan AC Surcos eta Koka Juniors taldeen arteko norgehiagoka egongo da ikusgai, eta goiko postuak daude jokoan. Eta jarraian Lasagabaster eta You Know taldeen arteko partidua jokatu da. Bihar goizean Saukelu Scream eta Betraye taldeen arteko partidua ez da galtzeko modukoa izango ezta domekan AC Surcos eta AT Celaya taldeek jokatu dutena ere.

AC SURCOS ETA AT CELAYA TALDEEK, ATZERATUTAKO PARTIDUA

AT Celaya eta AC Surcos taldeek gura beste futbol izango dute oraingo aste bukaeran. Orain dela aste bi jokatu behar zuten partidua atzeratu egin zuten, eta oraingo aste bukaeran norgehiagoka bi izango dituzte. Aste bukaera erabakigarria biotako.

HERRI KIROLAK

Ibarreko 172 neska-mutiko jo eta ke ibili ziren Euskal Soin Jardueren Topaketan

Astehenenean ibarreko hainbat ikastetxetako neska-mutilek herri kirolak hurragotik bizi ahal izan zituzten

XABIER URZELAI

Astehenen goizean ibarreko hainbat ikastetxetako 172 neska-mutikok Euskal Soin Jardueren Topaketan hartu zuten parte. Laubide plazan, goizeko hamarretan hasita, lehenengo kirolekin gozatzeko aukera izan zuten gazte askok, eta lehia polita egon zen.

Ikasiker enpresak antolatuta, astehenen goizean Euskal Soin Jardueren Topaketa izan zen Laubide plazan, eta goizean goizetik jai giroa egon zen. Bergarako Aranzadi, Aretxabaletako Kurtzeberri eta Arrasateko Arizmendi eta Mesedeetako Ama ikastetxeetako 172 neska-mutiko batu ziren Laubiden. Bergarako 40 ikasle, Aretxabaletako 28 eta Arrasateko 104 egon ziren Euskal

Soin Jardueren Topaketan.

Lehiaketa baino gehiago, lehenengo kirolariek egiten zituzten kirolak hobeto ezagutzea izan zen helburuetako bat. Lehenengo ferietako giroa Laubiden bizi izan genuen. Akaso apustuak sumatu genituen faltan.

HIRU ORDU JO ETA KE

Ibarreko gazteak, besteak beste, sokatiran, zaku-eroatean, lokotxetan, giza probetan eta lasterketetan trebatu ziren, eta guztiak ere proba ikusgarriak izan ziren, bai egiteko baita ikusteko ere. Horrez gainera, orientazio probak ere izan ziren, eta argi geratu zen begiak estaltzerakoan iparra galtzea askok uste dutena baino errazagoa dela. Noizean behin izugarri eskertzen da liburuak alde batera utzi eta horrelako ekintzak egitea.



XABIER URZELAI

Batek baino gehiagok izerdi galanta bota zuen astehenen goizean.



XABIER URZELAI

Herri kirolak izanda, indarrezko probek ere ez zuten kalerik egin.



XABIER URZELAI

Abiadura eta trebezia behar-beharrezkoak dira probak gaintzeko.

EUSKARA/ Umeek, gazteek eta nagusiek hainbat ekitaldi egingo dituzte Korrikaren alde

Ekitaldi mordoak antolatu dituzte Korrikari behar den moduko ongietorria egiteko

IKER BARANDIARAN

Datorren astelehenean, apirilaren 7an, helduko da Korrika 13 Arrasatera. AEK-k antolatzen duen euskararen aldeko ekimena 18:30ean helduko da herrira. Horren harira, Korrikari ongietorria egiteko hainbat ekintza antolatu dituzte.

Korrika 13 herrira datorrela-eta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Orain dela urte bi Korrika gauzez pasatu zen Arrasatetik. Edozelan ere, oso arrakastatsua izan zen eta jende mordoak hartu zuen parte. Aurten, ostera, 18:30ean helduko da. Hortaz, antolatzailuek aurtengo Korrikaren ibilbidea are arrakastatsua izango dela uste dute.

TALOOK, DANTZA ETA MUSIKA

Aurretik Korrika Kulturalak zenbait ekitaldi antolatu ditu herrian—horra hor Pantxoa eta Peioren emanaldia eta Bihar Berriz pop-rock taldearen kontzertua, esaterako—, eta aste bukaera honetan eta astelehenean ere ekitaldi gehiago antolatu dituzte.

Bihar, zapatua, Ekin elkarreko emakumeek taloak egingo dituzte Seber Altuben, 19:00etan, eta horretarako txosna jarriko dute. Zapatuan, ordu berean, Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeek herriko zenbait lekutan dantza emanaldiak egingo dituzte. Domekan, ostera, Arrasate Musikaleko txistulariek eta Bandak kalejira egingo dute, eguerdian. Hiru kalejira joko dituzte: *Tomas Acebal "El Bala"*, *Goizeko Izarra* eta *Mendirik-Mendi*, hain zuzen ere.

UME, GAZTE ETA NAGUSI

Astelehena, apirilaren 7a, Korrikaren egun handia izango da



Duela bi urte, Korrikak parte hartze ikaragarria izan zuen herrian.

Arrasaten. Ume, gazte eta nagusiek Korrikari behar den moduko ongietorria egingo diote. Bazkalostean, 15:15ean, eskoletako umeek Korrika Txikia egingo dute, eta 16:00etan bukatuko dute, Herriko Plazan. Han bolo-boloa eta txokolate-jana izango dituzte. Horren ondoren, 16:30ean, Zirimiri taldeak Gaur Jaia ume berbena egingo du Herriko Plazan.

Korrika 18:30ean helduko da Aretxabaletatik Arrasateko mugara. Herritarrek Mugarrin egingo diote ongietorria Korrikari eta handik, Mugarritik,

Korrikak San Andreserantz joko du. Gero herri barrura sartuko da eta Herriko Plazara helduaz bat, txalaparta soinuak horren berri emango du. Herriko hainbat kale zeharkatu ondoren, 19:30ean Korrikak agur esango dio Arrasateri, eta Kanpanzartik gora joango da.

Orain dela urte bi Korrika gauzez pasatu zen herritik eta parte-hartzea ikaragarria izan zen. Aurten, ostera, arratsalde pasatuko da. Horregatik, parte-hartzea ordukoa baino askoz handiago izatea espero dute antolatzailuek.

20:00etan, Korrikak herritik alde egin eta gero, triki-poteoa egingo da. Seber Altubetik irten go da. Horren ostean, 21:00etan afaria egingo dute Uarkape jate-txean. Txartelak Hiren, Iratin edo AEKn erosi ahal dira, hamar euroren truke.

Mondragon Unibertsitateko Euskara batzordeak ere afari berezia antolatu zuen egun gauean. 21:30ean Mondragon Unibertsitateko jangelan bertso-afaria antolatu zuten. Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio ibili ziren bertsotan, gai librean. Aurkezlea Urki Bilbao izan zen.



Gorringo taldearen Kutsidazu bidea, Ixabel antzezlanak oso kritika onak jaso ditu.

'Kutsidazu bidea, Ixabel'

Gorringo antzerki taldeak Joxean Sagastizabalek idatzitako umorezko *Kutsidazu bidea, Ixabel* nobelan oinarritutako antzezlanak prestatu du.

Joxean Sagastizabalek 1994an kaleratu zuen nobela horren ardatza umorea da. Estilo arinez idatzia dago eta Alberdania argitaletxeak kaleratu zuen. Dagoeneko hainbat alditan berrargitaratu dute eta ospe handia hartu du. Nobela horretan honako istorio hau kontatzen da: Juan Martin izeneko euskaldun-berri bat Tolo-

saldeko baserri batera doa euskara praktikatzera, eta baserri horretan pasarte xebreak bizi izango ditu.

Gorringo antzerki taldeak nobela hori egokitu eta taula gainera eraman du. 75 minutu irauten duen lan horren zuzendaria Anartz Zuazua da, eta aktoreak honako hauek dira: Ixabel Agirresarobe, Egoitz Lasa, Ainere Tolosa, Mikel Sarriegi eta Anjel Alkain, hain zuzen ere.

Korrika Kulturalak antolatu du eta hitzordua domekan da, 19:30ean, Amaia Udal Antzokian.

LABUR



Debagoieneko Eskola Arteko Abesbatzen XVI. Topaketak

Bihar, zapatua, Arizmendi Ikastolak Debagoieneko Eskola Arteko Abesbatzen XVI. Topaketak antolatu ditu. Topaketak 17:00etan egingo dituzte, Amaia Udal Antzokian. Orain dela 16 urte San Frantzisko Xabier Ikastola abesbatzen topaketak antolatu zuten hasi zen, eta horren ondoren Arizmendi Ikastolak hartu zion lekukoa.

Aurten egingo diren topaketetan 400 bat abeslarik hartuko dute parte. Haur Hezikuntzari dagokionez, Aretxabaletako Santa Rita Haur Eskolako eta Arizmendi Ikastolako umeek hartuko dute parte. Lehen Hezikuntzari dagokionez, Arrasateko Herri Eskolako, Mesedeetako Andra Mari Ikastetxeko, Oñatikoa Santa Eskolastika Ikastetxeko eta Eskoriatzako eta Arizmendi ikastolako gaztetxoek abestuko dute. DBHri dagokionez, Arizmendi Ikastolako gaztetxoek abestuko dute. Horren ondoren, Bergarako Gabero taldeak abestuko du.

Alberto Iñurategiren 'Hire Himalaya'

Eguaztenean, apirilaren 9an, Alberto Iñurategik *Hire Himalaya* ikus-entzunezko eskainiko du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean, doan.

Albertok ikus-entzunezko horretan zuri-beltzeko argazkiak eta bideoa uzartuko ditu DVD formatuan. Ikus-entzunezko hori Felixendako emanaldia da eta, bide batez, Albertoren barne begirada bere bizitzaren ardatz dituen mendien mendien inguruko herriei eta herri horietan bizi den jendeari.

Hire Himalaya-n Alberto Iñurategiren mendizale-ibilbide osoa eta ikus-entzunezkoetan lortu duen esperientzia goztia dago batuta: baita aurretiko bederatzi ikus-entzunezkoetatik datorkiona eta ETBko *Oinak* izarretan programaren zuzendari gisa hiru denboraldiotan erdietsi duena ere.

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 Aranzabal Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana 16 behea
(Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termi-
ko eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor. 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2-behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza - Bainuak
Gasa - Berogailuak



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Giltzak



• Sarrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkien konponketa • Artazi, laban, eta aba-
rren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gau-
zak • Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza etxea
Tel./Fax: 943 79 76 03

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea

Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Eraikuntzak



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Berecibar

Santa Marina 34 • Tel.: 943 79 09 63



ZUTARRI s.l.

Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.

Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

HEZKUNTZA/XIII. Eskola-Antzerki Jardunaldiak

Hezkuntza eta Kultura sailek XIII. Eskola-Antzerki Jardunaldiak antolatu dituzte

IKER BARANDIARAN

Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailek XIII. Eskola-Antzerki Jardunaldiak antolatu dituzte. Horien bitartez, ikasleek Amaia Udal Antzokiko instalazioak ezagutu, antzerki talde profesionalen ikuskizunak ikusi eta ikasleek euren lanak antzokian antzeztuko dituzte.

Arrasateko Udaleko Hezkuntza Sailak, Kultura Sailaren laguntzarekin, XIII. Eskola-Antzerki Jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi horiek hiru fase edo ildo garrantzitsu dituzte: bata, Amaia Udal Antzokian Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleendako antzerki talde profesionalen emanaldiak antolatzea; bestea, hainbat ikasleek Amaia Udal Antzokiko instalazioak modu didaktikoan ezagutzeko aukera izatea. Eta azkena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek prestatutako antzezlana ahal izatea.

Jardunaldi horiek 11.026 euroko aurrekontua dute, eta antolatu dituzten ekintzetan 2.103 ikasleek hartuko dute parte. Udaleko Hezkuntza Saileko eta Kultura Saileko arduradunen esanetan, jardunaldi horiek antolatu ahal izateko ezinbestekoa da eskoletako irakasleek eta Amaia Udal Antzokiko langileek egiten duten lana.

ANTZERKI ZALETASUNA BULTZATU

Programa horren helburuak honako hauek dira: ikasleek artean antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzea; ikasleek Amaia Udal Antzokira eramatea,

antzerkia ikusten ohitu daitezzen; aktibitatearen alderdi hezigarriak eta ludikoak ezagutzera ematea; kultura transmisioa eta aisialdia; eta balioetan oinarritutako hezkuntza. Helburu horien gainean Udaleko Kultura zinegotzi Jose Ramon Arkauzek ondoko hausnarketa egin zuen: "Azkenengo urteotan jardunaldi horietan ikasleek egin duten lana goraiatzekoa da. Are gehiago, hainbat ikasleek euren lanak Amaia Udal Antzokian antzeztuko dituzte. Horrekin batera, herrian antzerki zaletasuna handitu egin da. Baina, zoritxarrez, aspaldian ez da herrian antzerki talderik sortu. Ea ikasle batzuek batu eta talde bat eratzen duten".

Orain dela 13 urte Hezkuntza eta Kultura sailak jardunaldi horiek antolatzen hasi zirenetik gaur egunera arte programa horrek aldaketak izan ditu: azkeneko zazpi urteotan jardunaldiek aipatutako hiru faseak izan dituzte; eta aspaldian programa hori udaberrian finkatu dute.

Jardunaldi horiek antzerki zaletasuna bultzatu eta aktoreak sortzeaz gain, antzokiak zelakak diren eta zein instalazio dituzten erakutsi gura dute. Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek Amaia Udal Antzokiko instalazio guztiak ikusiko dituzte. Horretarako, aurretik instalazioen gaineko txostenak banatuko dizkiete. Aktoreez gain, teknikariak eta bestelako atzeko lanak egingo dituztenak ere behar dira.

Ikasleek guraso eta ikasleendako bost ikuskizun antzeztuko dituzte: *Txin, txin, txin, txin, diruaren hotsa; Mak, ikertzaile ausarta; Lehenengo oporrrak; Mireni laguntzen; eta Bederatzi ez da bederatzi*. 64 ikasleek egingo dituzte aktore lanak.



Hezkuntza eta Kultura sailetako arduradunek eman zuten Antzerki-Eskola jardunaldien prentsaurrekoa.

Profesionalen eta ikasleen antzezlana

Apirilko lehenengo egunetan Almeneko, Institutuko, San Frantzisko Xabierko, Mesedeetako Amako eta San Viatoroko ikasleek hainbat antzezlana eskainiko dituzte Amaia antzokian. Honako hauek izango dira eskainiko dituzten antzezlana: *Txin, txin, txin, txin, diruaren hotsa; Mak, ikertzaile ausarta; Lehenengo oporrrak; Mireni laguntzen eta Bederatzi ez da bederatzi*. Gurasoek eta ikasleek ikusi ahal izango dituzte antzezlana.

Baina, horiez gain, antzerki talde profesionalen antzezlana ere izango dira. Apirilaren 10ean Paraiso taldeak *Zinema* ikuskizuna antzeztuko du. Apirilaren 29an Txiskine taldeak *Ko ko ro ko* antzezlana eskainiko du. Maiatzaren 6an Paraiso taldeak *Trena* lana antzeztuko du. Eta, bukatzeko, maiatzaren 14an Porpol antzerki taldeak *Leire hasi berria* lana antzeztuko du. Eskoletako gaztetxoek ikusi ahal izango dituzte lan horiek.

Hamabost rock taldek joko dute 'Egunkaria'-ren aldeko kontzertuan

I.B.

Egunkaria Aurrera herri batzordeak eta herriko rock taldeek Egunkarirock izeneko kontzertua antolatu dute bihar, zapatua. Kontzertua 17:00etan hasiko da eta batutako dirua Egunkaria-rendako izango da.

Egunkaria Aurrera herri batzordeak *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko ekimen esanguratsua antolatu du. Herriko rock taldeekin batera *Egunkarirock* izeneko kontzertua antolatu dute. Kontzertua bihar, zapatua, izango da Uarkape pilotalekuan, eta kon-

tzertuan jasotako dirua *Euskaldunon Egunkaria* berriaren proiektura bideratuko dute.

HERRIKO 15 ROCK TALDE

Kontzertua 17:00etan hasiko da eta sei euroren truke herriko 15 rock talderen emanaldiak ikusteko aukera egongo da. Talde bakoitzak ordu erdiko kontzertua egingo du eta horien ostean, astia izanez gero, DJek musika jarriko dute.

Honako musika taldeek joko dute: Never Surrender, Ardi Galduak, Quadrofénicos, Iskanbila, Anger, Des-Kontrol, Kañeria 13, Cretinos, Ekon, Special Crew,

Arkada Social, Enboskada, Jodete, Numen eta Jukebox taldeek.

Talde guztiak Arrasatekoak dira eta antolatzaileek nabarmendu gura izan dute kontzertu horretan ikusi eta entzun ahal izango diren taldeen musika estiloa oso zabala dela.

Talde horien artean izango da inoiz zuzenean jo ez duen talderik, baita dagoeneko urte mordoxka taula gainean daramatenak ere. Ezagunen artean, Ekon, Iskanbila, Anger, Jukebox eta Des-Kontrol daude. Kontzertua emango duten talde berrienak, oster, Quadrofénicos eta Cretinos izango dira.



E, TXO!

**TXATXILIPURDI,
BEGIRALE BILA**

Txatxilipurdik 2003ko udalekuetan begirale izan gura dutenei dei egin die. Interesatuak curriculum, argazki bat, begirale titulua eta NAREN kopia aurkeztu beharko dituzte Txatxilipurdik Pablo Urangan duen egoitzan, apirilaren 16a baino lehenago. Bete beharreko baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile formazio saioetara joatea. Informazio zabalagoa, 943 77 17 39 telefonoan (Jaione edo Itziar).

BEGIRALEEN LAGUNTZAILEAK

Txatxilipurdik udalekue-tarako begirale laguntzai-leak behar ditu. Boluntario lanetan ibiliko dira eta, bide batez, begirale lana ikasiko dute. 16 eta 18 urte artean izan beharko dituzte. Interesatuok, jo Txatxilipurdira.

**IKASLE ABERTZALEEN
DEIALDIA**

Ikasle Abertzaleak taldeak Mobilizazio Astea deitu du apirilaren 8tik 10era bitartean, *Euskal ikasle eskubideak ez daude salgai* lelopean.

Apirilaren 9an, esaterako, ikastetxeetan eskola alternatiboak antolatzeko deialdia egin dute, eta hilaren 10erako mendi ibilaldiak antolatu dituzte.

**GAZTEMANIAK
LEHIAKETARAKO DEIALDIA**

Apirilaren 30ean bukatuko da VII. Gaztemaniak Maketa Lehiaketan lanak aurkezteko epea. Aurkezten diren talde guztien artean hamabost aukeratu dituzte talde horien artean. Informazio zabalagoa gura izanez gero, jo honako webgunera: www.gipuzkoa.net.

GUREGAIAK/ IKASLEEK 'EGUNKARIA' KALERATU DUTE

**Ferixalekuko ikasleek
'Egunkaria'-ren zenbaki berezia kaleratu dute**

IKER BARANDIARAN


Arizmendi Ikastolako Ferixalekuko ikasleek *Euskaldunon Egunkaria*-ren zenbaki berezia kaleratu dute. *Gu be bagare Egunkaria* izena du eta elkarrizketak, iritziak, albisteak eta bestelakoak batu dituzte.

Euskaldunon Egunkaria-ren itxierak jende asko mindu eta haserretu du, eta horien artean ikasleak ere badaude. Martxoaren 13an, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko greba eta mobilizazio egunean, Arrasateko eskola guztiek protesta ekimenak egin zituzten. Bada, -horren ildotik, Arizmendi Ikastolako Ferixalekuko ikasleek *Egunkaria* kaleztatzea erabaki zuten.

'Gu be bagare egunkaria'-n elkarrizketak, iritzia, albisteak, eta beste batu dituzte

'GU BE BAGARE EGUNKARIA'

Gu be bagare egunkaria izena duen egunkari horrek hainbat gai landu ditu, hala nola: protesta egunaren gaineko albisteak, iritzi artikuluak, Arizmendi Ikastolako zuzendari Txaro Iraetari eta beste lagun batzuei egindako elkarrizketak. Horrez gainera,



ARRASATE PRESS

Egunkariaren emaitza ikusita, herrian kazetari harrobia dagoela esan dezakegu.

poesiek eta ipuinek ere izan dute lekua *Gu be bagare egunkaria*-n, baita denbora-pasek eta horoskopoak ere. Ikasle horien emaitza ikusita, badirudi herrian kazetari harrobia badagoela!

LOTSABARIK/ Tamara Pérez

"Lagunek gaizki abesten dudala diote"

IKER BARANDIARAN

Tamarak txikitan abeslari izan gura zuen, eta gaur egun ere bakarrik dagoenean abestu egiten du. Orain, oster, ikasketekin buru-belarri dabil, eta ikasketak eta lagunak dira Tamararen lehentasunak.

- Txikitan, zer izan gura zenuen?
Abeslari. Logelan abesten nuen. Oraindik ere jarraitzen dut bakarrik nagoenean abesten, lagunek gaizki abesten dudala esaten didatelako. Hala ere, ez dut etsiko.
- Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Umeekin; bat eduki gura dut gutxienez. Lanean ibiltzea espero dut, posible balitz telebistako kontuekin. Eta ez dut uste Arrasaten bizi izango naizenik; agian, Valladoliden.

- Zein da, zeure iritzi, adin ideiala?
18, 19 edo 20 urte. Ikasketak kanpoan egiten ibiliko naiz, guraso barik bizi izango naiz...
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
Lagunak edukitzeari eta haiek zaintzeari.
- Zerk arduratzen zaitu gehien?
Lehenik eta behin ikasketak ondo bukatzeak eta horren ondoren, lagunak.

- Zerk ematen dizu lotsa?
Honelako elkarrizketak egiteak eta nire argazkia ARRASATE PRESSEn irteteak.
- Zure alde onen bat? Eta alde txarren bat?
Lagunei eta, orokorrean, jendeari entzuteko pazientzia daukat, baina batzuetan zakar samarra naiz.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?
Ipurdia, handia dudalako.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?
Lehenengo, ipurdiari; gero, mutila ezagutzen saiatzen naiz.
- Arrasaten ligatzen da?
Zorte ona duenak bai, hark ligatzen du.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko lehen maila • ZALETASUNAK: Kirola egitea eta lagunekin irtetea
LIBURU BAT: 'Galdu arte' • FILM BAT: 'Mortadelo y Filemón' • MUSIKA TALDEA: Extremoduro • KIROL TALDEA: Bartzelona eta Alaves

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

"PAL"

Burdindegia
Brikolajea
Tresneria

Uribarri etorbidea 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Metal aroztégia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztégia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

BEHEKODENDATIK

Aitziber Zumalde

IZARRA KOPISTEGIA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Aitziber mondraguetarra da, eta txiki-txikittatik aktore izen gure euen. Ikesi be hori ikesi euen, Bilbon, baiñe aktorie hara eta hona ibilli biher da, eta Aitziber gustora dau Mondraguen, lagun eta familixe giruen. Aitziberrek eta ahiztiek oin dala urtebete zabaldu euen kopistegixie, eta gustora dabitz lanjen.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Aktore.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Ez dakit ba... Aktorie hara eta hona ibilli biher da, eta oin ez dauket horretarako gogorik.

Ze esango zeuskio Saddam Husseiniei?

Beste agintari askori esango neuskiena: herrixendako gobernu daukela.

Eta Bushei?

Aita Mennin izena emuteko.

Eta Aznarrei?

Iguela baiñe ostikada batekin. Bush okerra da, baiñe Aznar ton-tue da.

Drogak legalizauko zeuke?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Un tranvía llamado deseo / La herbolera / Natalie Cole gustetan jat.

Nora juengo zitzaie gustora? New Yorkera.

Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?

Liburu bat, parejie eta txalupa bat, gure dotenien bueltetako.

Etxeko lanik gorrotagarri-xena?

Plantxetie.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Ez oso. Bilbon eta Gasteizen giro politte egoten da.

Puntuau Mondragueko girue.

Seixe emungo dutzegu.

Ze dauko ona udaberriek?

Beste gogo batekin jaikitten zarella.



“Pertsonie ez badot ezaguketan, begixetan eta ipurdixen fijetan naz lelengo”

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Papela.

Jefiari ze esango zeuskio gustora?

Ez dauket jeferik, baiñe eukittetkotan, gehixago pagetako!

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Aspaldixen motibo asko dauz.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinekin?

Iñokin be ez.

Pertsona baten zertan fijetan zara lelengo?

Ez badot ezaguketan, begixetan eta ipurdixen.

Denpora librien ze egitten dozu?

“Azterketa denporan makiñatxo bat ingeniero etorten da hona ‘txuletak’ egitteko asmuekin”

Leidu eta telebisiñue ikusi, adibidez.

Janari eta edari gustokue-nak?

Jateko, mingaiña; edateko, melokotoi txupitue.

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Euskal Herriek independen-tzia lortu dauela.

Zenbat ingeniero pasau dien hemendik...

Uf, mordue!

Eta, txuleta asko egitten dittue?

Azterketa denporan bai. Esan biher dogu, gaiñera, txuletak egitteko materixal eskusibue daukogule.

NIREBIDAIAHURA/ Enaitz Balantzategi

Alemaniarra / 2001eko abuztuan

Enaitz Alemanian egon zen orain dela urte bi. Eskalatzera joan zen, eta, bide batez, Alemaniako bazterrak ezagutzera. Ez zen bakarrik joan, Arrasateko beste sei lagunekin batera baizik. Alemaniarra iritsitakoan, baina, Euskal Herriko hainbat lagunekin elkartu ziren, eta talde polita osatu zuten. Frankenjurara joan ziren, Nurenberg-etik 50 kilometrora dagoen zonara. Frankenjura leku berezia da eskalatzailleendako; hori dio, behintzat, Enaitzek: “Frankenjurari hasi zen kirol-eskalada, eta lehenengo egin ziren eskalada-bideak han daude. Harriak ez dira oso handiak, bide motzak dira eta oso esplosiboak”.

Frankenjura, baina, oso handia da eta eskalatzeko hormak hainbat lekutan daude: “Lo egiteko etxe bat hartu genuen errentan, eta egunero-egunero autoak hartu eta hainbat lekutara joaten ginen eskalatzera”. Hilabete egin zuten Alemanian, baina egunero eskalatzera ia ezinezkoa da, deskantsatu ere egin behar da-eta: “Eskalatzeko ez genuen egunetan turismoa egitera joaten ginen. Besteak beste, Bamberg-en eta Nurenbergen egon ginen. Nurenberg oso polita da, baina Bamberg ez zitzaidan batere gustatu. Lourdesen antza hartu nion: hiri erlijiosoà, lasaia... Eta, gainera, hango garagardoa ez zegoen batere ona.


Alemaniatik itzultzerakoan Parisen geratu ziren zazpi lagunak: “Parisen boulderra egiteko oso leku aproposa dago, baina berehala joan ginen handik; izan ere, autora lapurrak sartu zitzaizkigun. Ez ziguten gauza handirik lapurtu: Alemaniatic genekartzan 24 garagardo eta 5.000 pezeta, besterik ez”. Aurtengo udan ere Enaitz Europa aldera joango da, eskalatzera: “Seguruenik Frantzia aldera joango gara, baina oraindik ez daukagu ezer erabakita”.



“Frankenjura oso leku berezia da; leku ona da eskalatzeko”

“Eskalatzeko ez genbiltzanean turismoa egiten genuen”

XABIER URZELAI



Enaitz Frankenjurako El Dorado sektorean.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Uribarriko erretiratua oso gustura ibiltzen dira karta-jokoan. Are gehiago, txapelketa jokoan dagoenean.

Uribarriko erretiratuek karta-joko txapelketak jokatu dituzte

IKER BARANDIARAN

Martxoan azkeneko astean Uribarriko zaharren elkarteak karta-joko txapelketak jokatu zituzten. Urtero egiten duten moduan, Uribarriko elkarteak karta eta domino txapelketak antolatu zituen. Bitxor Altube arduratu zen horretaz guztiaz. Izan ere, Bitxorrek berak egin zituen antolatzaile eta epaile lanak. Domino Txapelketan hiru bikote eman zuten izena. Musean ere beste hiru bikote jokatu zuten. Tutean eta briskan, ostera, joko bakoitzean bederatzina bikote ibili ziren jokoan.

Joan den urtean erretiratu gutxi eman zuten izena eta azkenean ez zuten txapelketarik antolatu. Aurten, ostera, parte-hartze handiagoa egon da eta oso giro onean ibili dira. Hain zuzen ere, martitzen, eguazten eta eguen arratsaldeetan elkartearen aretoa pil-pilean egon zen. Hura zen burrundara eta emozioa! Argi dago parte-hartzaileak oso gustura ibili zirela jokoan.

KOPAK ETA OPARIAK

Alberto Borgek eta Lorenzo Rojasek osatutako bikoteak mus, eta tute txapelketak irabazi zituen. Baita Domino Txapelketa ere. Briska Txapelketa, ostera, Angelita De La Torrek eta Luisa Parmak osatutako bikoteak irabazi zuten.

Mendi ibilaldia ere egin zuten

Udaberria hasi zenetik Uribarriko erretiratuek mendi ibilaldiak egiten dituzte. Arratsalde partean irten eta inguruetatik paseo politikak egiten dituzte. Atzo, eguna, Uribarriko 32 lagunek Garagartza aldera jo zuten.

Eguraldiak laguntzen badu, hilean behin ibilaldia antolatuko dute, urte bukaera arte, Arrasate inguruetan.

Martxoaren 27an (eguna), iluntzean, karta-joko txapelketa guztiak bukatu bezain pronto, opariak banatu zituzten. Gizonei kopak eta opariak eman zizkieten; eta emakumeei, ostera, hainbat opari.

ABAROAKO KANPORAKETARA

Mus, tute eta domino txapelketak irabazi zituzten Alberto Borgek eta Lorenzo Rojasek Uribarriko erretiratuen elkartearen ordezkatuko dute Abaroan jokatu duten karta-joko kanporaketan.

Urtero herriko lau erretiratuen elkarteek karta-joko txapelketa bana antolatu dute. Eta, hain zuzen ere, elkarte bakoitzean irabazle izan den bikoteak Arrasateko gainerako erretiratuen elkartearen ordezkatuko dute Abaroan. Alberto Borge eta Lorenzo Rojas musean lehiatuko dira, Uribarriko erretiratuen ordezkatuko.

Era berean, Abaroako txapelketa irabazten duen bikoteak ibarreko txapelketan Arrasate ordezkatuko du.

LABUR

Abaroa erretiratuen elkarteak jendearekiko arreta orduak aldatu ditu

Joan den martitzenean, apirilaren 2an, Abaroa erretiratuen elkarteak jendearekiko arreta orduak aldatu zituen. Hori horrela, hemendik aurrera goizez ez dute inor hartuko; hala, 18:00etatik 19:30era jardungo dute.

Bestalde, Oropesa del Marrera joateko izena eman zutenek dagoeneko eskura ditzakete bidaiarako txartelak.

1936an eta 1940an jaiotako emakumeen urteroko batzarrak

1940an jaiotako emakumeek urteroko batzarra egingo dute apirilaren 12an. Musakola Hostalean egingo dute bazkaria. Interesatuak apirilaren 5a baino lehenago eman behar dute izena Hire liburu dendan edo Begoña lurrindegian. Eta 1936an jaiotako emakumeek maiatzaren 10ean egingo dute batzarra. Musakola Hostalean bazkalduko dute. Izena eman Murumendiaren gozotegian.



Estresaren gaineko berbaldia Uribarrin

Uribarriko erretiratuen elkarteak, herriko beste elkarte batzuen moduan, lan eta lan dabil ekitaldiak antolatzen. Karta-joko txapelketa bukatu berri, berbaldia eta mendi ibilaldiak antolatzen hasi da.

Herenegun, eguaztena, berbaldia antolatu zuten Uribarrin. Topikoak topiko, erretiratua lasai bizi direla esan ohi dugu, baina Arrasatekoak, behintzat, lanpetuta ibiltzen dira gauzak antolatzen. Agian horregatik honako berbaldia izan zuten: *Estresa eta horren ondorioak osasunean.* /I.B.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

EGUZKIGRAF

inprintegia

Industrialdea F-0-4
Tfno.: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA



ARRASATE
Ane Arrillaga
Apirilaren 7an, 3 urte. Zorionak! Familia guztiaren partetik.



ARAMAIO
Jone Arriolabengoa
Martxoaren 29an, 15 urte. Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Ainhoa Garro
Apirilaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! TMT.



ARRASATE
Iñigo Urtubi
Apirilaren 8an, 25 urte. Zorionak! TMT.



ARRASATE
Txus Goikoetxea
Apirilaren 8an, 33 urte. Zorionak! Segi, Etxerat, Askatasuna eta etxeokak.



ARRASATE
Lorea Zubia
Apirilaren 9an, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko en partetik.



ARRASATE
June Villar eta Arrate Lumbreras
Apirilaren 2an, 2 urte eta apirilaren 7an, 31 urte. Zorionak! Etxeko hirugarrenak.



ARRASATE
Ioritz Astaburuaga
Apirilaren 5ean, 2 urte. Zorionak! Etxeko en partetik.



BERGARA
Irene Gallastegi
Apirilaren 4an, urtebetetzea. Zorionak! Lagunen partetik.



ARAMAIO
Leire Larrañaga
Apirilaren 7an, 10 urte. Zorionak! Baserriko en partetik.



ARRASATE
Enrique Dolara
Apirilaren 4an, 40 urte. Zorionak, aitaixo!



ARRASATE
Maialen Garai
Apirilaren 3an, 4 urte. Zorionak! Aitaita, amama eta familiakoak.



ARRASATE
Jokin eta Maialen Salido
Apirilaren 5ean, 3 eta 9 urte. Zorionak! Familiakoak.




ARRASATE
Iker Pavón
Apirilaren 10ean, 7 urte. Zorionak! Etxekoak.




ARRASATE
Nerea Dorronsoro
Martxoaren 28an, 7 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Nagore Artamendi
Apirilaren 2an, urtebetetzea. Zorionak! Zure lan- kideak.



ARRASATE
Maite Carriet
Martxoaren 29an, 4 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Kevin Sande
Martxoaren 23an, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Malen Murgiondo
Apirilaren 5ean, 4 urte. Zorionak! Familiakoak.

Adi! Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**


*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zelan deitzen da Arrasate antolatzeko Udalak egin berri duen plana?
Arrastoa: besteak beste, etxebizitza gehiago egitea zehazten du plan horrek



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Orlando tomate frijitua
410g + %20 doan

0,48€ 80 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

GAIZKA UNZUETArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Gaizka!
Galderen erantzun zuzena:
Olarte kantoia.

ARRASATEKO HISTORIA

Euskal kulturaren jakintzaren bultzatzailea: Jokin Zaitegi

JON ANDER RAMOS

Arrasaten jaio zen, 1906ko uztailaren 26an, eta 1979ko abuztuaren 17an hil zen, Oñatin.

1920an Durangoko Jesuiten Ikastetxean sartu zen eta 1921ean Loiolara joan zen. 1924an euskararekiko zaletasuna indartzen hasi zitzaion. 1926an Oñara (Burgos) joan zen ikastera, eta gero Venezuelara, 1927an.

Geroago Espainiara joan zen, baina 1932an, jesuitak bota zituztenean, Marneffera (Belgika) joan zen. Ikasketa erlijiosoak euskararen ikasketarekin tartekatu zituen han. Are gehiago, 1934an, Zarautzen, Lizardiren omenez antolatu zuten lehiaketara poesia bat bidali zuen eta lehenengo saria eman zioten. Horrela sendotu zen haren zaletasun nagusia.

1935eko uztailaren 35ean egin zen abade. Hurrengo egunean esan zuen aurreneko meza Marneffen. Belgikan geratu zen 1937ra arte. El Salvadorrera joan zen gero, eta zazpi urtez egon zen; *Bidalien Eginak* idatzi zuen han, eta, euskal antzerkiaren maila

Guatemalatik bertatik sortu eta zuzendu zuen 'Euzko Gogoa' aldizkaria bederatzi urtez

Helenismoarekiko eta euskararekiko zaletasuna zela-eta, filosofo handiak landu zituen

goratzeko ahaleginean, *Sopoken Antzerkiak* euskaratu zituen. Baina euskararekiko zaletasunak eta jarduera eskusiboak eragina izan zuten Jesusen Lagundian. Eta, 1944tik aurrera alde egin eta abade sekular lanetan jarraitu zuen.

Guatemalara joan zen, San Carlos Unibertsitatean eta Amerika Institutuan erakustera, eta 1945ean Longfellowren



ARRASATE GURE HERRIA

Ekzerretik hasita, Orixe, Zaitegi eta, eskuma-eskuman, Andima Ibiñagabeitia. Hiru haiek izan ziren *Euzko Gogoa*-ren zutabeak.

Evangeline euskaratu zuen. 1951n lizeo eta egoitza propioak inauguratu zituen. Horrez gainera, Guatemalan *Euzko Gogoa* aldizkaria sortu eta zuzendu zuen bederatzi urtez.

1956an itzuli zen Arrasatera. *Goldaketan* lana publikatu zuen. Horrez gainera, helenismoarekiko eta euskararekiko zuen

zaletasunaren ondorioz, Platon, Socrates, Euripides, Sofocles, eta abar landu zituen. Besteak beste, *Platon'eneko atarian* liburuan Platonen elkarrizketak itzuli zituen. 1962an Guatemalara bueltatu zen, eta han *Berriz ere Goldaketan* idatzi zuen; 1972an Arrasatera etorri zen, eta urrian ama hil zitzaion. Gaixo samar

ibili zen azken urteetan. 1979an hil zen, Oñatin.

Jokin Zaitegiren alde esandakoen artean, Aita Villasantek zera esan zuen: "Benetan horrelako seme erraldoiak Arrasatek bakarrik eman ditzake, Garibai, Bañez eta Seber Altuberen herriak, alajaina!"

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko apirilaren 4a / 60. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Abere-ustiapenarekin lotutako etxebizitzendako araudi berria

UBANE MADERA

Abere-ustiapenarekin lotutako etxebizitzak eraikitzearen ordenantza onartu berri du udalbatzarrak. Behin-behineko araudia da; baina oraingoz, behintzat, hori erabiliko dute. Hain justu ere, arau subsidiarioek gai horren gainean diotena osatuko du ordenantza berriak.

Abere-ustiapenari lotutako etxebizitzak eraiki baino lehen, sei baldintza bete beharko ditu interesdunak. Hala dio ordenantza berriak.

Lehenik eta behin abere-ustiapenaren etxebizitza eraikitzea behar-beharrezkoa dela arrazoitu beharra dago. Horrez gainera, ustiapenaren titularrak abere-ustiapena pertsonalki lantzen duela ziurtatu beharko du.

BIDERAGARRITASUNA

Era berean, mota horretako etxebizitzak eraiki ahal izateko ustiapenaren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatuko duen proiektua aurkeztu beharko du. Adibidez, azientadunak erakutsi beharko du irabazien %50 baino gehiago abere-ustiapenetik jasotzen duela.



Etxebizitza beharrezkoa dela arrazoitu beharko da, araudiaren arabera.

Ustiapen bakoitzeko, gutxienez, behin betiko lanpostu bat sortu beharko da, bi urteko antzina-kotasunarekin. Eta jarduera, gutxienez, 10 urtean indarrean edukiko duelako konpromisoa hartuko du interesdunak.

Hala ere, Udalak uste du salbuespenak egon daitezkeela. Ustiapenak garrantzi ekonomiko handia badu, lanpostu berriak sortzen baditu edo Udalaren interesa pizten badu; orduan, ustiapenaren antzinatasa ez dute kontuan hartuko.

Lehen esandako moduan, arau

subsidiarioek gai horren gainean esaten dutena osatzea da ordenantzen asmoa. Kontua da arau subsidiarioek nahiko gauza oinarritzkoak arautzen dituztela eta oso baldintza urriak ipintzen dituztela abere-ustiapenarekin lotutako etxebizitzak eraikitzeo. Horren ondorioz, geroago eta sarriago, abere-ustiapenaren aitzakia erabilia abere-ustiapenarekin loturarik ez duten etxebizitzak eraikitzen dabilta, eta egoera hori konpondu gura du Udalak. Azkenaldian horrelako bost kasu izan dituzte Aramaion.

Jose Mari Azkarraga 'Lurgorri' omenduko dute

UBANE MADERA

Jose Mari Azkarraga *Lurgorri* idazlea omenduko du Aramaio-ko Udalak. Apirilaren 11n eta 12an egingo dituzte ekitaldiak. Besteak beste, Aramaio-ko pasealeku bati idazlearen izena ipiniko diote. 1937ko abenduaren 16an hil zuten nazionalak *Lurgorri*, 21 urte zituela.

Esandako moduan, apirilaren 11n hasiko dira Jose Mari Azkarraga *Lurgorri*-ren omenezko ekitaldiak.

Barikuan, hilaren 11n, *Lurgorri*-ren biografiaren eta idazlanen gaineko hitzaldia izango da kultura etxean, 19:00etan. Eta zapatuan, hilaren 12an, goizetik eguerdira arteko ekitaldiak izango dira, horiek ere kultura etxean. Horrela, 11:00etan idazlearen gainean berba egingo dute eta gero mahai-ingurua izango da. Vélez de Mendizabal idazleak (*Lurgorri*-ren lobak) eta Paco Salaberriak (Sabin Salaberriaren anaiak) hartuko dute parte. Errepublikak, Espainiak gerra eta sasoiako kontuak izango dituzte berbagai, *Lurgorri*-ren garaiko kontuak, alegia. Horren ondoren *Lurgorri*-ren gaineko CD eta bideo bana aurkeztuko dituzte. Bixente Mondragon ibili

da lan hori egiten. Eta Jose Mari Azkarraga Mozo "*Lurgorri*". Bere bizitza eta idazlanak izeneko liburua ere aurkeztuko dute.

Horrez gainera, 12:00etan Aramaio-ko pasealeku bati (Aita Gabriel kalearen atzeko aldean dago) *Lurgorri* izena emango diote; eta 13:00etan idazlearen gaineko erakusketa inauguratuko dute, Sastiñan. Bukatzeko, gura duenaren dako mokadutxoia egongo da erretiratuen egoitzan.

BIHOTZA ETA ETXEA, ARAMAION

Lurgorri Erreterian sortu zen, 1916ko urriaren 29an. Jaitzez gipuzkoarra izan arren, bihotza beti izan zuen Aramaion, familiarekin. Madrilen egin zituen batxilergoa eta Zuzenbide ikasketak. Baina aberriarendako izan zituen lanik handienak. Madrilgo Euzko-Ikasketa-Batzako presidentea izan zen; *Euzkadi* eta *Euzko-Langille* aldizkarietan parte hartu zuen, besteak beste. 1936an, gerra hasi zenean, EAJren agindupean ipini zen. Eta erresistentzia euskalduna sortu zenean, Amayur batailoian sartu zen. Ariztimuño taldean ibili zen, atxilotu zuten arte. Epaiketean, epaileak bere aberria zein zen galdetu zionean, *Lurgorri*-k zera erantzun zion: "Euzkadi da nire aberria".

Sahararrak Aramaiora ekartzeko proposamena onetsi du Udalak

Joan den asteko osoko bilkuran Udalak onespina eman zion udan sahararrak Aramaiora ekartzeko proposamenari. Fronte Polisario-ko Euskadiko ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoan egin du proposamen hori, 2003ko Oporrak Bakean izeneko programaren bitartez.

Hain justu, helburua da ume sahararrak uztailaren 6tik irailaren 6ra arte hemen egotea. Umeok mendiak, basoak, errekak, itsasoa eta horrelakoak ikus ditzaten; eta jakina, bizi diren kanpalekuetan dituzten gabeziak egun batzuetan ahatz ditzaten. Izan ere, 7 eta 12 urte arteko ume sahararrei zuzendutako ekimena da; Tyndouf-eko kanpalekuan jai

eta bizi izan diren umei zuzendutakoa, hain zuzen. Ume horiek izugarritzko gabeziak jasaten dituzte Saharan, batez ere, hezkuntzarekin, osasunarekin eta elikadurarekin lotuta.

Fronte Polisario-ko Euskadiko ordezkariak duen helburua da 450-500 ume ekartzea Euskadira.

GURA DUENA HARA JOAN DAITEKE

Ekimen berezi horretan parte hartu gura duten aramaioarrek udaletxera jo beharko dute apirilaren 10a baino lehen. Gero, apirilaren 16tik 20ra errefuxiatuen kanpalekuetara joateko bidaia antolatu du Fronte Polisario-ko Euskadiko ordezkariak.

Horrela, gura duen familiak hara joan eta gura duen umea ekarri ahal izango du.

Ume bat ekartzea 440 euro kostatzen da. Horrekin, umearen eta begiraleen hegazkin-txartelak, laguntzaileen ostatu eta elikagai gastuak, pasaporteen polizak, antolaketa gastuak... ordainduko dituzte.

Eusko Jaurlearitzako Osasun Sailak, bestalde, umeen osasun laguntza bere kargu hartuko du Euskadin dauden bitartean, eta erantzukizun zibilari eta istripuei aurre egiteko aseguru pribatua izango dute.

Iaz 400 ume ekarri zituzten Euskadira 2003ko Oporrak Bakean programaren bitartez.



Iaz 400 ume ekarri zituzten Euskadira Oporrak Bakean programarekin.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martiri Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postebidea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

TELEFONO BARIK

Martitzenean telefono barik geratu zen Aramaio. 14:00-14:30ak aldera gertatu zen. Ustez zuntz optikoren bat apurtu zen, eta horregatik ezin izan zen telefona erabili. Gau partean konpondu zuten arazoa.

ARETO FUTBOLA

Gazte mailako taldeak 1-2 galdu zuten El Pilar Marianistas taldearen kontra; kadete mailako mutilek irabazi egin zuten, aurkaria (CD Aurrera taldea) ez zelako agertu; eta neskek 1-5 irabazi zioten Ekialde taldeari. Bihar, zapatua, neskek eta mutilek Aramaion jokatu dute; mutilek Olabideren kontra, 10:00etan, eta neskek Ekialderen kontra, 11:00etan; gazte mailakoek, berriz, Gasteizko Aldabe kiroldegian jokatu dute, Urgatziren kontra.

PALETA TXAPELKETA

Garaita eta Floresek Arriola-bengoa eta Azurmendiri irabazi zieten (35-34); hortaz, lehenengoak sailkatu dira.

ZINEMA

Tarzan y Jane emango dute.

Aramaiok ere arineketan egingo du, Korrikarekin

UBANE MADERA

Aurtengo Korrika Aramaiotik pasatzen ez den arren, Aramaiok ere hartuko du parte euskararen aldeko ekimen berezi horretan. Esaterako, Korrika Eguna antolatu dute kultura taldeen artean. Bihar izango da, 17:00etan. Horrez gainera, Aramaiok korrika egiteko kilometro bat erosi du.

Korrikaren alde dirua batzea da Korrika Egunaren helburua. Horretarako, 17:00etan hasita, ekitaldi erraldoi modukoa antolatu dute Aramaioko kultura elkarteek, guzti-guztia euskal kulturaren baitan, jakina.

Kiroldegian izango da ekitaldia, eta hiru euro kobratuko dute sarrera. Ekitaldian bertan herriko talde batzuek saioa egingo dute. Adibidez, Aramaioko trikitilariak soina eta panderoa astinduko dituzte, aramaiotarren oinak astintzen ipini arte. Lagun-Artean dantza taldekoak ere han ibiliko dira. Hiru bat dantza egiteko asmoa dute.

Kantuekin segituz, sortu berri den gazte abesbatza ikusteko auke-

ra egingo da. Orain arte estreinatu bariko kantuek egingo dituzte gazteek. Bertso Eskolakoek ere izango dute euren abileziak erakusteko tartea. Eta, bukatzeko, mendielkartekoek diapositiba emanaldia egingo dute.

Horrez gainera, Korrika Eguna aprobetxatu eta *Egunkaria*-ren aldeko saltokia ipiniko dute bihar. Harpidetzak egin ahal izango dira eta bestelako materiala erosi (kamisetak, pinak...).

ARAMAIAREN KILOMETROA

Eta, Korrika pasatzen den egunean bertan, Aramaiok korrika egiteko bere kilometrotxoa izango du: 731. kilometroa. Arabako azkeneko kilometroa izango da, Gipuzkoarako noranzkoan, Marisa inguruan, hain zuzen. 16:45ean iritsiko da gure hartara. Eta, jakina, gura duten herritar guztiak egin dezakete arineketan.

Horren harira, Aramaioko Korrika batzordeak herritarren laguntza eskatu du Korrikaren alde dirua batzeko. Hain justu, herriko talde kulturali eta elkar-teei gutuna bidali die Korrikaren aldeko borondatezko laguntza eske.


BOTEPRONTOAN/ Yago Goronaeta · Ekon musika taldeko gitarra-jolea

“Musikarekin gozatu egin gura dut, eta hemendik aurrera ere musikari ez diot gehiagorik eskatuko”

Txirritola-ko kolaboratzaile izateaz gain, besteak beste, musikaria ere bada Yago Goronaeta. Hain justu, gitarra jotzen du Arrasateko Ekon taldean. Hirugarren diskoa atera zuen iaz talde horrek, *Salatzen Dute* izeneko. Horrelakoak eta bestelakoak kontatu dizkigu Yagok:

Zer salatzen duzue?

Oso galdera zabala! (Barreak). Diskoan ikusten da hori. Gaur egun gizartean pasatzen diren gauzak salatzen ditugu, kanpoan edo etxean pasatzen direnak; jakina, guztia gure ikuspegitik. Gainera, orain dela urtebete atera zen diskoa, eta oraindik ere abestien hitzak indarrean daude esaten ditugun gauza askotan: *Egunkaria*-ren kontua, Batasunaren legez kanporatzea... Oro har salatzen dugu botereak gura duena egiteko duen boterea, demokraziaren alde dauden irudipean. Horrelakoak kritikatzeko ditugu; guk dugun *famari* esker zelanbaiteko *botere txikia* dugu gure ikuspuntua azaltzeko. Zelan doa Ekon-en ibilbidea (hiru disko, webgunea, bideo-klipa...)? Nahiko ondo. Orain Euskadi Gazteko lehiaketarako aukeratu gaituzte, bideoklipen sailean.



“Salatzen dugu demokraziaren izenean botereak gura duena egiteko duen boterea”

Sail berria da. Apirilean erabakiko dute horren gainean. **Eta, Yagoren ibilbidea, musikari moduan?**

Lanarekin tartekatzen dut musika. Egiten dudana gustatzen zait, baina gauza gehiago egitea ere gustatzen zait: lagunekin elkartu eta blues musika jotzen dugu, 70eko musika... Etorkizunerako gauza berriak egiteko gogoarekin nabil; ez bakarrik metal arloan, rocka, punk-rocka, bluesa...

Zelan iritsi zinen Ekon-era?

Lehenago Aramaion jotzen nuen, Amatxon taldean. Aramaioko koadrilakoekin jotzen nuen eta oso ondo pasatzen nuen, baina aurrera jarraitzeko gauza serioagoa gura nuen... Edozelan ere, inportanteena da eurekin oso ondo konpontzen naizela, eta

“Akaso eguneroko bizimoduan ilemototsa gehiagotan kendu beharko nuke...”

Aramaioko Udalak bikoiztu egin du gizarte laguntzailearen zerbitzua

Aramaioko Udalak jakinarazi digunez, joan den martitzenetik aurrera, hilak 1, Aramaioko gizarte laguntzailearen zerbitzua handitu egin dute. Hain justu ere, astean behin etorri beharrean, hementik aurrera astean birritan etorriko da gizarte laguntzailea. Hona-ko hauxe da ordutegia: eguaztentean, 12:00etatik 14:00etara; eta barikuetan, 08:00etatik 12:00etara. Edozelan ere, udaletxera joan aurretik, ahal bada, komeni da alde aurretik abisatzea. Susana Martinez Zurbano da Aramaion gizarte laguntzailea.

Sagardogileen Eguna badatorrela-eta, sagardoaren gaineko ikastaroa egingo da

Apirilaren 27an ospatuko dute Sagardogileen Eguna. Horrekin lotuta, sagardoaren gaineko ikastaroa antolatu du Txirritola elkarteak. Apirilaren 27a baino lehenago Pazzo jaiak direnez, erabaki dute ikastaro hori datorren astean izango dela, apirilaren 9an eta 10ean. Lau orduko ikastaroa izango da, Alazne Arruti adituaren eskutik. Kultura etxean emango du, lehenengo solairuan, 18:00etatik 20:00etara, eta parte hartu gura duenak hara joan baino ez du. Oro har sagardoa zelan egiten den erakutsiko du Alazne Arrutik.

Aramaioko Yoga Eskolaren eskutik, yogaren gaineko hitzaldia

Apirilaren 9an, eguaztenean, *Yoga eta Osasuna* izeneko hitzaldia entzuteko aukera egingo da kultura etxean. Alfredo Iglesias sendagilea izango da hizlaria; Oñatiko Sanatana Dharma yoga eskolako sortzaile da.

19:00etan ekingo dio berbaldiri, eta gura duenak parte har dezake. Aramaioko Yoga Eskolak antolatutako ekimena da.

gaur egun ere lagun onenak ditudala.

Noraino iritsi gura zenuke?

Uf! Uste dut musikatik bizi izatea oso gaitza dela. Eta, gainera, Euskal Herrian hori urte jakin batzuetan lor daiteke, baina betiko... Argi daukat musika ondo pasatzeko dela, eta horretarako erabili behar dut, terapia baliatuz bezala. Nik musikarekin gozatu egin gura dut, eta hemendik aurrera ere musikari ez diot gehiagorik eskatuko.

Jeneralean mutil lotsati samarra da Yago, baina taula gainean ilea astindu, nikia kendu... Denetarik egiten du. Eraldatu egiten zara, Yago. Zer gertatzen zaizu?

Akaso eguneroko bizimoduan ilemototsa gehiagotan kendu beharko nuke... Berez gauzak barruan gordetzeko ohitura dut, eta musika terapia modukoa da. Musika gogorra jotzen bazabiltza, askatu egiten zara. Uste dut nire espirituarendako ondo etortzen dela. (Barreak).

Profeta zara jaioterrian?

Ez dut uste, eta ez dut gura. Bat gehiago izanez gero, hobeto. Profetek sutan bukatzen dute, edo harrikatu egiten dituzte... Hobeto lau lagunekin ibili, pozik, beste barik.

ERRETRATUZAHARRA

Herri Gain elkartearen inaugurazioa

Herri Gain elkarte gastronomikoak 25 urte bete zituen joan den martxoaren 19an. Eta egun berezi hura gogoratu guran elkartearen inaugurazio eguneko argazkia ekarri dugu oraingo astean.

Esandako moduan, 1978ko martxoaren 19an inauguratu zuten Herri Gain. Arratsaldean egin zuten ekitaldia. Aita Garmendia fraideak egin zuen bedein-kazioa, eta, besteak beste, garai hartako alkate Juan Antonio Txatillo han izan zen. Gure berriemaileak kontatu digunez, Herri Gain 64 bazkiderekin sortu zen (lau koadrilarekin) eta gaur egun 110 bazkide daude elkartearen. Hasiera-hasieratik sartu ziren SUDCen barruan; eta ordutik hona ekitaldi ugartan hartu dute parte Herri Gain elkartekoek: Bakailao Txapelketan, danborradan, Akordeoi Lehiaketan...

Elkarteko aurreneko presidentea Gerardo Morrás izan zen. Eta gure berriemaileak kontatu digu beste lau lagun ohorezko bazkide izendatu zituztela hasieran; izan ere, lokala erosteko dirua behar zutela-eta, lau



lagun haiek abal-emaile lanak bete zituzten; hauexek dira ohorezko bazkideok: Enrike Landaluze, Pablo Garai, Pedro Uribetxeberrria Peino eta Jose Mari Gallastegi (hilda dago).

Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik hasita: Joseba Etxagibel (Monte tabernakoa), Juan

Mari Ortueta, Alfonso Vitoria, Txoli Olivares, Ignacio Morrás, Javier Osés Lolo eta Daniel Altuna Maskaino. Horrez gain, argazkiaren beheko aldekoa Txatillo da, eta, lehen esan moduan, fraidea Aita Garmendia frantziskotarra.

Bitxikeria moduan, gure berriemai-

leak kontatu digu argazkian agertzen diren lagun guztietatik Txatillo-k eta Iñaki Morrás-ek bakarrik dutela ilea.

Argazkia: Ramon Loiti
Informazioa: Ramon Loiti
Urtea: 1978

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Zerrajerako futbol zelaia eta igerilekua

Zerrajerako kirolgunean izerdia erruz bota dute askok. Arrasateko zenbat lagunek ikasiko ote zuten igerileku hartan igeri egiten? Hori bai, gizonezkoak guztiak; izan ere, emakumeak ezin ziren igerilekura sartu. Igerilekua 1948ko uztailaren 24an inauguratu zuten. Ondoa zegoen futbol zelaiaren makinatxo bat partidu jokatu zituzten orduko gazteek.



≈ 1948 Futbol zelaia eta igerilekua egoteaz gainera, kirol instalazioen ondo-ondoan ondo zaindutako lorategiak zeuden.



2003 Gaur egun Zerrajera desagertuta dago, eta orduko futbol zelaiak eta igerilekuak aspaldi egin zieten lekua asfaltoari eta adreiluei.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

OSORIK PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE


TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 ♯ ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
mocketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila

GATZA ETA
BERAKATZA...

Gertuko sukaldea,
gertu-gertutik!

Egunero,
13:30ean, 16:00ean,
19:45ean eta 21:45ean

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*



GRUPO RKUZ 1950-2003

Zure etxea da



RKUZ ALTZARIARI
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL ALTZARIARI
MUEBLAS
Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ SURALDE INTEGRALA
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



RKUZ ELEKTROGAILUARI
Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

